


**GRADUKO TITULUAK 2010/11**

eman ta zabal zazu



**Universidad  
del País Vasco**

**Euskal Herriko  
Unibertsitatea**

**JAKINTZA-ADARRA:**

# **ARTE ETA GIZA ZIENTZIAK**

**Gradu guztiak oraindik egiaztatu gabe daude**

**Azken-aldaketa: 2009/10/27**

**Ikasleen Errektoreordetza / Vicerrectorado de Alumnado**

**Ikasleentzako Argibide Zerbitzua / Servicio de Orientación Universitaria**



## AURKIBIDEA

### JAKINTZA-ADARRA: ARTE ETA GIZA ZIENTZIAK

<b>Arteko Gradua</b>	
- Arte Ederren Fakultatea	5
<b>Kultura Ondareen Zaintza eta Zaharberritzeari buruzko Gradua</b>	
- Arte Ederren Fakultatea	11
<b>Sorkuntza eta Diseinuko Gradua</b>	
- Arte Ederren Fakultatea	17
<b>Ingeles Ikasketetako Gradua</b>	
- Letren Fakultatea	23
<b>Euskal Ikasketetako Gradua</b>	
- Letren Fakultatea	27
<b>Filosofiako Gradua</b>	
- Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	33
<b>Historiako Gradua</b>	
- Letren Fakultatea	39
<b>Artearen Historiako Gradua</b>	
- Letren Fakultatea	43
<b>Letra Moderno eta Klasikoetako Gradua</b>	
- Letren Fakultatea	47
<b>Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua</b>	
- Letren Fakultatea	53
<b>ERANSKINA: Unibertsitatean sartzeko probaren fase espezifikoko modalitateko gaietan lortutako kalifikazioak haztatzeko parametroak. 2010/11 ikasturtea</b>	57

**OHARRA:**

*Eskuliburu honetan agertzen diren euskarazko irakasgaien izenak ez dira behin betikoak.*



**IKASKETA DESKRIBAPENA**

la hiru hamarkada dira Arteko goi-mailako ikasketak unibertsitatean daudela eta, ordutik hona, matrikula-eskaerek gora egin dute etengabe. Izan ere, ikasketa hauek artearen jakintza-arloan prestakuntza beharra asetzen dute mailarik gorenean eta hori premiazkoa da egungo gizartean. Askotariko erreferente estetikoaren iragazkitik pasatako eta, hein handi batean, teknologiak manipulaturako ikusmeneko informazioa duen gizarteak pentsatzeko gaitasunak sortu eta behar ditu, Artean garatzen direnak edo antzekoak alegia. Hain zuzen ere, Europar Batasunak kultur eta arte gaitasuna egungo hezkuntzaren sostengu izan behar duten zortzi euskarrien artean kokatu du.

Arte Ederren lizentziaturaren aldaketa dela medio, Arteko graduatu titulu hau, XVII. mendetik aurrera Arte Ederren Akademietan, ondoren Arte Ederren Goi-mailako Eskoletan eta azkenik, 1978. urtean unibertsitatean sartzean, Arte Ederren Fakultateetan ematen ziren ikasketen oinordeko zuzena izango da. Artearen sorkuntza, ekoizpen, hedatze eta ikerketaren arloetan profesionalak sortzean eragingo du batik bat.

**SARTZEKO PROFILA**

Arteko Graduan sartuko den ikasle orok honakoak garatu behar izan ditu: kultur eta artearekiko interesa; norbere sentsibilitate estetikoa garatzeko ardura; irmotasuna, malgutasuna, iragazkortasuna eta motibazioa premiazkoak dituen ikasketetan murgiltzeko alde aurretiko jarrera eta baita praktika artistikoari lotutako erremintak eta materialak oinarrizko mailan erabiltzea ere. Horrez gain, komenigarria da arte plastikoetan zein artearen historian oinarrizko ezagutzak edukitzea, bai batxilergo artistikoaren bidez bai beste edonola lortutakoak.

**IKASKETEN ANTOLAKETA**

Mota	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila	Guztira
Jakintza-adarreko oinarrizko irakasgaiak	60				60
Beste jakintza-adarretako oinarrizko irakasgaiak					
Nahitaezkoak		60	42	18	120
Kanpoko praktikak					
Gradu Amaierako Lana				18	18
Hautazkoak			18	24	42
<b>Guztira</b>	<b>60</b>	<b>60</b>	<b>60</b>	<b>60</b>	<b>240</b>

## TITULAZIOAREN PROGRAMA

Arteko Gradua irakasgai ezberdinak biltzen dituzten lau mailatan egituratua dago. Lehenengo bi mailak Sorkuntza eta Diseinuko Graduaren eta Kultura Ondareen Zaintza eta Zaharberritzeari buruzko Graduaren berdinak dira. 3. eta 4. mailak aldiz, Arteko Gradurako espezifikokoak dira. Gainera, hautazko irakasgaiak, batetik, eta gradu amaierako lanak, bestetik, bakoitzak bere sakontze eta ibilbide propioak egitea ahalbidetzen dute.

Gradu honetan irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak saiotan egituratuak daude eta gaitasunak lortzeko helburuarekin irakasgaiak izaera praktikoa dute gehien bat. Irakaskuntza mota honek ikasle bakoitzaren lan pertsonalari jarraipena banan-banan egitea eskatzen du. Beraz, irakaskuntza-moduak mintegietan eta tailerretan oinarrituak daude. Bereziki aipagarriak dira diziplinariak izaera duten irakasgaiak, hots, Laborategiak.

Aipaturiko irakaskuntza metodologiek etengabeko ebaluazio metodoak indartzen dituzte. Hori guztia ikasgelako lanei jarraipena eginez, ataza eta proposamenen bidez. Jarraian aipatzen direnak balioesten dira: banakako lana, motibazioa, proposatutako jardueretan interesa izan eta parte hartzea, taldean nahiz ikasgelan esandakoak, lantaldeetan lankidetzan aritzea, jarduerak eta proposamenak garaiz egitea. Hori dena irakasgai eta maila bakoitzeko gaitasunen lorpen-mailaren arabera.

Arteko Graduak lehen bi mailak euskaraz edo gaztelaniaz ikas daitezke oso-osorik. Gainera, Eleaniztasun Planari jarraituz, etorkizunean hainbat irakasgai ingelesez eskaintzea posible izango litzateke.

### **Pintura eta Grafikako minorra (30 ECTS)**

Pintura eta Grafikako minorra proposatzen bada, materialetik abiatuta irudiak sortzeko praktiketan sakontzeko da. Ikasle bakoitzak, jakintza-era espezifikoko moduan, bere praktika ezagutu eta hari buruzko gogoeta egitera bideratuta dago. Aipatutako izaerak, batetik, eta irudiak sortu nahiz eraikitzeak jakintza espezifikokoak, bestetik, egiturazko baliabideak (apur bat diziplinatuagoak) eta ezagutzak eskaintzen dituzte, oro har, artearen praktikarako. Hau guztia beraz, esan bezala, Graduaren berezko helburuen artean dago.

Orain arte pintura gisa ulertu den arloa, teknologia berriekin zerikusia duten gaietara hedatzen ari da egun. Beraz, gaur egungo pintoreek Media-Art, inprimaketa grafikoa edo arte elektronikorekin lan egin ohi dute. Egiaz, ikusmen eta plastikaren eremu sortzaileetara hedatu izanak, ageriko funtzio soziala izateaz gain, kultur sarearen iraunkortasuna dakar, irteera profesionalak bermatuak izanik.

### **Media-art eta Teknologiako minorra (30 ECTS)**

Arte, Media eta Teknologiako minorra Espainian aitzindari eta erreferente izandako irakasle talde batek metatutako eskarmentutik abiatu da. Duela hogeitau bost urte abian jarritako espezializazio honek berrikuntza, kalitatea eta etengabeko hobekuntzarekiko konpromisoa bere gain hartu ditu. Bestalde, bizi dugun aroaren oinarri ikonografikoa kultur mediatikoa denez eta minor hau bertan txertatua dagoenez, egungo lan artistikoari egiten zaion hurbilketa bat da. Sartzen den ikasleari argazkilaritza, irudi mugikorak eta soinu nahiz teknologia elektronikoak arretaz aztertzeak, desafiatzeko eta esperimendatzeko adorea ematen dio, ideiak eta sormenezko berrikuntzak garatze aldera.

### **Eskulturako minorra: Testuinguruak eta Lekuak (30 ECTS)**

Eskultura: Testuinguruak eta Lekuak izeneko minorrak eskultura hartzen du erreferentzia gisa; eskultura, kultur ezberdinetan modu anitzetan islatu den praxian biltzen den jakintza antropologiko moduan ulertuz.

Azken mendeetako eta, bereziki, aro moderno eta postmodernoko (egungoa) eskultura-praktika erreferentziatza hartuta, "testuinguruak" eta "lekuak" argi ezberdindu daitezke. "Testuinguruak" diogunean, eskulturak aztertzen diren ingurune fisikoari edo egoerari aipu egingo diogu, besteak beste, politika, historia edo kulturarekin zerikusia dutenak. "Lekua" aipatzerakoan aldiz, pertzepzio, emozio eta sinboloen ikuspuntutik ingurune fisikoa, espaziala edo geografikoa pertsona edo talde batentzat nola antolatzen den dugu hizpide. Hori guztia, berau osatzen duten elementu fisiko, morfologiko eta sinbolikoen eremuan, eskultura kasu.

Horrela izanik, minor honek eskultura-fenomenoak ulertzeko kontzeptu-perspektiba ugari bildu nahi ditu. Bestalde, eskultura-praktikak leku izaera edukitzea ahalbidetu nahi da, hots, eremu publiko zein sozialetan komunitatea sortzea.

<b>LEHENENGO MAILA</b>	<b>KREDITUAK</b>	<b>LAUHILEKOA</b>	<b>MOTA (N/H)</b>
Artea eta Teknologia I	9	Urte osokoa	N
Irudigintza I	9	Urte osokoa	N
Eskultura I	9	Urte osokoa	N
XX. Mendeko Artearen Historiarako Sarrera	6	Urte osokoa	N
Irudien Laborategia	9	Urte osokoa	N
Materialen Laborategia	9	Urte osokoa	N
Pintura I	9	Urte osokoa	N

<b>BIGARREN MAILA</b>	<b>KREDITUAK</b>	<b>LAUHILEKOA</b>	<b>MOTA (N/H)</b>
Artea eta Teknologia II: Teknikak eta Prozesuak	9	Urte osokoa	N
Irudigintza II	9	Urte osokoa	N
Eskultura II	9	Urte osokoa	N
Artearen Historia Orokorra	6	Urte osokoa	N
Laborategia	9	Urte osokoa	N
Pintura II	9	Urte osokoa	N
Teknologiak eta Prozesuak	9	Urte osokoa	N

<b>HIRUGARREN MAILA</b>	<b>KREDITUAK</b>	<b>LAUHILEKOA</b>	<b>MOTA (N/H)</b>
Artea eta Teknologia III	6	Lehenengoa	N
Irudigintza III	6	Lehenengoa	N
Eskultura III	6	Lehenengoa	N
Azken Joeren Historia	6	Bigarrena	N
A Laborategia	6	Lehenengoa	N
B Laborategia	6	Bigarrena	N
Pintura III	6	Lehenengoa	N
Eskultura Eremuaren Kontzeptuak (*)	6	Bigarrena	H
Euskararen Araua eta Erabilera	6	Bigarrena	H
Teknologia Grafikoa	6	Bigarrena	H
Argazkilaritza Arte Garaikidearen Diskurtsoan	6	Bigarrena	H
Pintura Metodologia eta Proiektua (=)	6	Bigarrena	H
Pintura Metodologia eta Prozesuak (=)	6	Bigarrena	H

LAUGARREN MAILA	KREDITUAK	LAUHILEKOA	MOTA (N/H)
Hezkuntza eta Bitartekotza Artean	6	Lehenengoa	N
Arte-eremua: Testuak eta Testuinguruak	6	Bigarrena	N
Arte-sormenaren eta Profesionalizatzearen Prozesuak eta Metodologiak	6	Bigarrena	N
Giroa, Ekintza eta Parte Hartzea (*)	6	Lehenengoa	H
Arte Interaktiboa eta Interfazeak (+)	6	Lehenengoa	H
Arte-objektua (*)	6	Lehenengoa	H
Eskultura, Arkitektura eta Hiri Paisaia	6	Lehenengoa	H
Geometria Aplikatua	6	Lehenengoa	H
Instalakuntzak eta Soinu-eremuak	6	Lehenengoa	H
Komunikazioa Euskaraz: Arteak	6	Lehenengoa	H
Grafika Eremu Hedatuan (=)	6	Lehenengoa	H
Denboran Oinarritutako Bitartekoak (*)	6	Lehenengoa	H
Pintura, Teknologiak eta Diziplinartekotasuna (=)	6	Lehenengoa	H
Testuinguruaren Araberako Pintura Praktikak	6	Lehenengoa	H
Performance eta Testuinguruaren Araberako Artearen Erregistroa eta Praktikak	6	Lehenengoa	H
Gradu Amaierako Lana	18	Bigarrena	N

(\*) Eskulturako minorra: Testuinguruak eta Lekuak

(+) Media-art eta Teknologiako minorra

(=) Pintura eta Grafikako minorra

## MUGIKORTASUN PROGRAMAK

UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatea ikasleen mugikortasuna planifikatu eta kudeatzen aitzindari izandako ikastegietako bat da.

Sicue/Seneca programa ikasleak estatuko beste unibertsitate batera mugitzeko. Gure ikastegiak bi aldeko hitzarmenak ditu Estatuko Arte Ederren hamabi fakultaterekin eta ikasleei hogeit hamar mugikortasun plaza baino gehiago eskaintzen dizkie.

Socrates/ Erasmus programa. Programa hau ikasleak, irakasleak eta, duela gutxitik hona, administrazio eta zerbitzuetako langileak Europako unibertsitateetara mugitzeko da. Noski, UPV/EHUK unibertsitate horiekin hitzarmenak sinatuta dauzka. Gure kasuan, ikastegi horiek honako herrialdeetakoak dira: Alemania, Frantzia, Finlandia, Polonia, Errumania, Erresuma Batua, Portugal, Austria, Holanda, Bulgaria, Suitza, Norvegia eta Grezia. Trukeetarako plaza hauek zaharberitze, diseinu, ikus-entzunezko, grabatu, pintura edo eskulturakoak izan daitezke.

UPV/EHU-Latinoamerika programa. Latinoamerika eta Kariben ikasleak mugitzeko programa da. Gure ikastegiak zortzi herrialde ezberdinetara ikasleak mugitzeko hamar plaza inguru eskaintzen ditu. Azpimarratzekoak dira Mexikoko Escuela Nacional de Arte (UNAM) eta Argentinako UMSArekin sinatutako hitzarmen espezifikoak, biak oso ospe onekoak.

Beste norakoak programa Amerikako Estatu Batuak, Errusia, Kanada eta Asiako unibertsitateetara mugitzeko.

Nabarmendu nahi dugu API hitzarmena gure fakultateak Amerikako Estatu Batuetako ikastegiarekin espezifiko sinatutako hitzarmena dela. Horri esker, batez beste, ikasturte guztietan herrialde horretako hamar ikasleri harrera egiten diegu, gure fakultatean lauhileko bana igarotzen dutelarik.

## **PRAKTIKAK**

Arte Ederren Fakultateak 3. eta 4. mailako ikasleei hautazkoa den praktika programa bat eskaintzen die, enpresaren eremuan hezkuntzarako lankidetzaz egiteko. Horren helburua da ikasleak bere ikasketekin harremana duen lan-ingurunea ezagutzeko. Programa honek akordioak ditu profil profesional guztiak hartzen dituzten 100 enpresa, erakunde publiko eta pribatuekin. Praktika hauek bateragarriak dira ikasketekin eta, gehienera jota, 450 ordukoak izango dira. Halaber, hautazko sei kreditu baliozkotu ahalko dira.

## **ESKURATUTAKO GAITASUNAK**

- Artearen jakintza, jakintza tekniko gisa aitortzea.
- Gizarteak artista garaikideari exijitzen dionari lotuta, norbera bere sorkuntza-prozesuaren eta sortutakoaren arduradun izatea. Konpromisoak hartzeko gaitasuna edukitzea.
- Artearen egiteko modu eta lan-eremuekin erlazioatutako material, prozedura, teknologia eta, oro har, baliabideak erabiltzeko gai izatea; modu horretan, artearen identitate eta leku propioari buruzko gaiak ebatzi ahalko ditu-eta.
- Arte-proiektuak proposatu eta garatzeko beharrezkoak diren ezagutzak eta abileziak integratzea.
- Bilaketako eta eztabaida kritikoko baliabideak erabiltzea, baita sormen- eta zientzia-metodologiak ere. Aldi berean, ekimenak aurrera eraman eta erabakiak hartzeko gaitasuna izatea, bai banaka bai taldeka.
- Itxurapen eta adierazpide prozeduretan eragina duten arte diziplinetatik eratorritako oinarri ezberdinak maneiatzea.
- Artearen historia, teoria eta nozio garrantzitsuez gain, artisten obra eta idatzien bidez bere pentsamendua ezagutzeko.
- Arte-gertakizunen eta hauek jasotzen diren gizarte-testuinguruaren arteko harremana igarri eta bere funtzioen eta esanahien garrantziaz kargu egitea. Horrez gain, artearen historiaren nahiz kultur garaikidearen gainean gogoeta egin eta ikuspuntu kritikoa bereganatzea. Halaber, berdintasun, bakearen kultura eta diskriminazio ezaren balioak eskuratzea.
- Artearen sistema, funtzionatzeko mekanismoak eta eskakizunak ezagutzeko bere eremuan profesionalki txertatu ahal izateko. Autoreen eta jabetza intelektualaren eskubideei dagozkien funtzionamendua eta arazoak ezagutzeko.
- Ezagutzak hedatzeko gai izatea eta, beharrezkoa den alorretan, artearekin lotutako hezkuntza eta bitartekotza lanak burutzeko. Esaterako, irakaskuntzan, museoaren kudeaketan, erakusketen muntaketan, arte-kritikan, kultur aholkularitzan, enpresaren eremuko berrikuntza eta sormenezko lantaldeetan, eta abar.
- Artearen eremuan atzerriko hizkuntza bateko ezagutzak edukitzea, modu horretan nazioartean erraz moldatu ahalko dira-eta.
- Artelanak sortu, ekoiztu eta hedatzeko informatikako tresnak erabiltzeko gai izatea.

## **GRADUATU PROFILA**

Arteko graduatuak arteari berezkoak zaizkion ezagutzetan adituak dira. Ezagutza hori praktika eta teknika multzo batzuen garapenean oinarritua dago eta, nahitaez, gaitasun hauek hartzen ditu: adimena (aukeraketak egiteko gaitasuna), emozioei eta zentzumenei dagozkien intentsitate eta konplexutasuna izatea, transmititzeko gaitasuna, subjektu artekotasuna eta subjektu barnekotasuna.

Beraz, zentzumen/adimen dikotomiaz haratago joanik, pentsamendu konplexuko egitekoak zein prozesuak burutzeko gai dira. Obra sortzeko teknikak subjektua eraikitzearekin harremana duten gaiekin integratzen dituzte. Graduan eskuratutako jakintzek honakoak burutzeko gaitasunak ematen dizkiete: arte-adierazpenen sorkuntza, ekoizpena, erakusketa, irakaskuntza, ebaluazioa eta kudeaketa. Horrez gain, etorkizunean autonomia osoz goi mailako ikasketak hasteko gaitasuna izango dute, graduondoko nahiz masterrak.

## LAN TXERTAKETA

Ados Consulting enpresak ikerketak egin zituen UPV/EHUko Arte Ederren Fakultaterako 2002-2007 urteei zegokienez. Orduan, Arte Ederren lizentziatura bakarra zegoen abian eta bertatik honakoak ondoriozta daitezke:

Arte Ederren irakats eskaintzaren enplegu-tasa UPV/EHUko batez bestekoaren azpitik dagoen arren, lana lortzen dutenen ehunekoa apur bat altuagoa da. Hau da, Arte Ederretan lizentziatuek, unibertsitateko beste ikasleekin alderatuaz gero, langabezi egoera gehiago dute batez beste baina lanean diharduten horiek jasotako prestakuntzarekin zerikusia duten lanpostuak betetzen dituzte. Enplegua eskaintzen duten talde profesional nagusiak hauek dira: diseinua, eskultura, pintura, irakaskuntza, artearen sorkuntzarekin harremana duten lanbideak, irudia eta soinua, argazkilaritza eta ikus-entzunezkoak.

Ez dago eskaera espezifikorik Arte Ederren titulurako, bai ordea ikasketa hauetan trebatzen diren ezagutza eta teknikentzako. Titulua baino, trebakuntza bilatzen da beraz.

## EZARPENAREN KRONOLOGIA

<b>1. maila</b>	2010/2011
<b>2. maila</b>	2011/2012
<b>3. maila</b>	2012/2013
<b>4. maila</b>	2013/2014

## KULTURA ONDAREEN ZAINITZA ETA ZAHARBERRITZEARI BURUZKO GRADUA

Arte Ederren Fakultatea

www.bellasartes.ehu.es

### IKASKETEN DESKRIBAPENA

Kultura Ondareen zaintzaile-zaharberritzailea honakoaz arduratzen den profesionala da: kultura ondareen zuzeneko zaintzaz nahiz zaharberritzeaz, esku-hartzeko irizpideak ezartzeaz eta tratamenduak ipintzeaz. Hori guztia, noski, osotasuna eta iraupena bermatzeko beharrezkoak diren ezagutza, abileziak eta trebetasunak aplikatuaz. UNESCOk eta ICOMek (Museoen Nazioarteko Kontseiluak) ezarritako arautegiaren arabera, bere jardura kultura ondareen azterketa tekniko, babestea eta zaintza-zaharberritzea egitean datza. Tekniko honek kultura ondareen esku-hartze prozesuetan ardatz moduan lan egiten du, edozein ekintzaren aurretik egin beharreko diagnostia adosteko profesional ezberdinek izaten duten diziplinarteko dialogoaren eta jarraitzeko irizpideen ardatz hain zuzen ere. Behin diagnostia finkatua dagoenean, eremu ezberdinetatik bildutako datuak erlazionatu eta tratamenduaren inguruko proposamen globalak egingo ditu. Bestalde, diziplinarteko taldeak eztabaidatu eta onartu dituen neurriak antolatuko ditu. Datuak lortzeko alegiazko diziplinarteko lankidetzaren ostean, zaintzaile-zaharberritzailearen ardura da jardunbidea zehaztea eta, batik bat, kultura ondareari egin beharreko zuzeneko esku-hartzea egitea.

Zaintzaile-zaharberritzaileak honako ezaugarriak bildu behar ditu: lehenik eta behin, arduraduna izango da, hots, kultura ondarearen garrantziaren eta bere esku-hartzearen ondorioen kontziente izango da. Bigarrenik, jantzia izango da, hau da, diziplina anitzeko ezagutzak eduki eta diziplinarteko dialogoak edukitzeko gai izango da. Hirugarrenik, abila eta, beraz, kultura ondareari zuzeneko esku-hartzea egiteko gai. Azkenik, gertutasun eta konpromisoazko jarrera izatea ere eskatzen zaio.

### SARTZEKO PROFILA

Kultura Ondareen Zaintza eta Zaharberritzeari buruzko Gradura sartu nahi duen ikasle orok bere profilean honako gaitasunak izan beharko lituzke:

- Historian zehar artearen adierazpide ezberdin izan direnak ezagutzeko interes naturala erakustea.
- Ezagutzaren transmisioko elementuak diren neurrian, kultura ondareen zaintzaren garrantzia balioestea.
- Oso garrantzitsua da ikasleek euren ama hizkuntza (euskara-gaztelania) menperatzea, bai ahoz bai idatziz.
- Halaber, analisirako eta sintesirako gaitasuna eduki behar dute eta heldutasuna, diziplinaren aberastasunari eta aniztasunari aurre egiteko.

Horrez gain, ikasleak honakoak azaltzea ere interesgarria litzateke:

- Lankidetzaz-izpiritua izatea, ikasketa- eta lan-taldeetan errazago integratzeko.
- Arte-adierazpenekin lotutako gaiak ezagutzeko jakin-mina eta interesa izan behar dute eta ikusmen-artearen eta kulturaren arloko aurrerapen teknikoak ezagutzeko grina.

Oso gomendagarria da:

- Baliabide informatikorik ohikoenak erabiltzen jakitea, baita diziplinan erabiltzen den hizkuntzaren bat ezagutzea ere (ingeleza edo italiara)
- Artean eta Kulturaren parte hartzeko interesa izatea.
- Bakoitzak bere sentzibilitate estetikoa garatzeko grina edukitzea.
- Prest egotea motibazioa, ekimena, malgutasuna eta iragazkortasuna eskatzen dituen ikasketak burutzeko.

## IKASKETEN ANTOLAKETA

Mota	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila	Guztira
Jakintza-adarreko oinarritzko irakasgaiak	60				60
Beste jakintza-adarretako oinarritzko irakasgaiak					
Nahitaezkoak		60	42	24	126
Kanpoko praktikak					
Gradu Amaierako Lana				6	6
Hautazkoak			18	30	48
<b>Guztira</b>	<b>60</b>	<b>60</b>	<b>60</b>	<b>60</b>	<b>240</b>

## TITULAZIOAREN PROGRAMA

Kultura Ondareen Zaintza eta Zaharberritzeari buruzko Gradua diziplinarteko ikasketek osatzen dute. Lehenengo bi mailak komunak dira Arte Ederren Fakultatean irakasten diren beste graduekin. 3. eta 4. mailak aldiz, zaintza eta zaharberritze gaiak sendotzera bideratuak daude.

Premiazkoa da laborategien espezifikotasuna azpimarratzea, diziplinarteko lana burutzeko gune baitira. Euren abiapuntua honakoa da: irakasleen eta ikasleen artean lan komuna egitea esperimendazioaren eremuan. Prestakuntza osatzeko, bigarren mailan bada irakasgai bat "Teknologiak eta Prozesuak" deiturikoa. Sailarteko irakasgai honetan teknologia eta prozesu grafikoak, eskulturakoak nahiz pinturakoak aztertu, analizatu eta esperimendatu dira.

Hirugarren mailan, ikasleak nahitaezko 42 kreditu egin beharko ditu, artelanen osagai materialen zaintza egiteko ezagutzak ematen dituztenak. Ezagutza hauek transmititzeko gai pedagogikoak erabiltzen dira, izaera zientifikoa, teknikoa eta historikoa dutenak alegia. Horri esker, ikasleak gai horietan trebatzeaz gain, hurrengo mailarako prest egongo dira, mailaz maila zailtasuna igo egiten da-eta.

Laugarren mailan, ikasleak nahitaezko 18 kreditu egingo ditu. Horietan, zaharberritzearen oinarriak landuko dira ikuspuntu humanista batetik eta benetako esku-hartze proiektuen bidez. Laugarren maila amaitzen duen ikasleak bere lanbideari berezkoak zaizkion betebeharrak egin ahal izateko oinarri eta ezagutzak bereganatuko ditu, artelanekiko ardura eta errespetua erakutsiaz.

Gradu amaierako lana beharrezkoa da eta graduko azken seihilekoan egingo da. Kultura ondareen zaintza eta zaharberritzeari lotutako gairen bati buruz ikasleak banaka egingo duen ikerketa originala da. Lan horretan erakutsi behar da graduan zehar landutako gaitasunak baneratu direla: teorikoak, praktikoak zein metodologikoak. Aurrez ikasitako diziplinak integratu ahalko dira eta, horrez gain, analisirako, ikerketarako eta arazoak konpontzeko gaitasunak islatu beharko dira. Lana euskaraz edo gaztelaniaz egin daiteke.

<b>LEHENENGO MAILA</b>	<b>KREDITUAK</b>	<b>LAUHILEKOA</b>	<b>MOTA (N/H)</b>
Artea eta Teknologia I	9	Urte osokoa	N
Irudigintza I	9	Urte osokoa	N
Eskultura I	9	Urte osokoa	N
XX. Mendeko Artearen Historiarako Sarrera	6	Urte osokoa	N
Irudien Laborategia	9	Urte osokoa	N
Materialen Laborategia	9	Urte osokoa	N
Pintura I	9	Urte osokoa	N

<b>BIGARREN MAILA</b>	<b>KREDITUAK</b>	<b>LAUHILEKOA</b>	<b>MOTA (N/H)</b>
Artea eta Teknologia II: Teknikak eta Prozesuak	9	Urte osokoa	N
Irudigintza II	9	Urte osokoa	N
Eskultura II	9	Urte osokoa	N
Artearen Historia Orokorra	6	Urte osokoa	N
Laborategia	9	Urte osokoa	N
Pintura II	9	Urte osokoa	N
Teknologiak eta Prozesuak	9	Urte osokoa	N

<b>HIRUGARREN MAILA</b>	<b>KREDITUAK</b>	<b>LAUHILEKOA</b>	<b>MOTA (N/H)</b>
Zaintza-zaharbertzearen Oinarri Zientifikoak	6	Bigarrenkoa	OB
Sostengu Anitzeko Eskulturen Zaintzaren Oinarriak	6	Lehenengoa	N
Sostengu Anitzeko Pinturen Zaintzaren Oinarriak I	6	Lehenengoa	N
Proposamen Plastiko Berrien Zaintzaren Oinarriak	6	Lehenengoa	N
Sostengu Anitzeko Pinturen Zaintzaren Oinarriak II	6	Bigarrenkoa	N
Zaintzarako Materialen Ezagutza eta Aplikaziorako Laborategia	6	Lehenengoa	N
Zaintzaren Teoria eta Esku-hartzeko Irizpideak	6	Lehenengoa	N
Prebentziozko Zaintza. Kultura Ondareen Aldaketa eta Hondatze Faktoreak.	6	Bigarrenkoa	H
Euskararen Araua eta Erabilera	6	Bigarrenkoa	H
Kultura Ondareen Zaintza eta Zaharbertzearen Historia	6	Bigarrenkoa	H
Pintura materialak eta prozesuak	6	Bigarrenkoa	H
Kultura Ondareei Aplikaturiko Berrintegraziozko Teknikak eta Kontzeptuak	6	Bigarrenkoa	H
Inprimatutako Lanen Teknikak, Prozedurak eta Zaintza	6	Bigarrenkoa	H

LAUGARREN MAILA	KREDITUAK	LAUHILEKOA	MOTA (N/H)
Kultura Ondareen Azterketa Teknikoa eta Dokumentazioa Ikerketa eta Metodo Zientifikoa	6	Lehenengoa	N
Sostengu Anitzeko Eskulturen Zaharberritzea	6	Lehenengoa	N
Adierazpide Plastiko Berrien Zaharberritzea	6	Bigarrenkoa	N
Sostengu Anitzeko Pinturen Zaharberritzea	6	Lehenengoa	N
Ondarearen Kudeaketa, Erakusketa eta Erregistroa	6	Bigarrenkoa	H
Generoak eta Gaiak Artean	6	Bigarrenkoa	H
Komunikazioa Euskaraz: Arteak	6	Lehenengoa	H
Mitologia eta Ikonografia	6	Lehenengoa	H
Horma-pintura Sostenguak eta Teknikak	6	Lehenengoa	H
Oihal Gaineko Pinturen Zaharberritzea	6	Bigarrenkoa	H
Horma-pinturen Zaharberritzea	6	Bigarrenkoa	H
Eskulturazko Teknikak: Materialak eta Prozedurak	6	Lehenengoa	H
Obra Zuzenean Paper Gainean Egiteko Teknikak, Prozedurak eta Zaintza	6	Bigarrenkoa	H
Gradu Amaierako Lana	6	Bigarrenkoa	N

## MUGIKORTASUN PROGRAMAK

UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatea ikastegi aitzindaria da ikasleen mugikortasuna planifikatu eta kudeatzen.

Sicue/Seneca programa ikasleak Estatuko beste unibertsitate batera mugitzeko da. Gure ikastegiak bi aldeko hitzarmenak ditu Espainiako Arte Ederren hamabi fakultaterekin eta ikasleei hogeit hamar mugikortasun plaza baino gehiago eskaintzen dizkie.

Socrates/ Erasmus programa. Programa hau ikasleak, irakasleak eta, duela gutxitik hona, administrazio eta zerbitzuetako langileak Europako unibertsitateetara mugitzeko da. Noski, UPV/EHUk unibertsitate horiekin hitzarmenak sinatuta dauzka. Gure kasuan, ikastegi horiek herrialde hauetakoak dira: Alemania, Frantzia, Finlandia, Polonia, Errumania, Erresuma Batua, Portugal, Austria, Holanda, Bulgaria, Suitza, Norvegia eta Grezia. Trukeetarako plaza hauek zaharberritze, diseinu, ikus-entzunezko, grabatu, pintura edo eskulturakoak izan daitezke.

UPV/EHU-Latinoamerika programa. Latinoamerika eta Kariben ikasleak mugitzeko programa da. Gure ikastegiak zortzi herrialde ezberdinetara ikasleak mugitzeko hamar plaza inguru eskaintzen ditu. Azpimarratzekoak dira Mexikoko Escuela Nacional de Arte (UNAM) eta Argentinako UMSAren sinatutako hitzarmen espezifikokoak, biak oso ospe onekoak. gozan de reconocido prestigio.

Beste norakoak programa Amerikako Estatu Batuak, Errusia, Kanada eta Asiako unibertsitateetara mugitzeko.

Nabarmendu nahi dugu API hitzarmena gure fakultateak Amerikako Estatu Batuetako ikastegiekin espezifikoki sinatutako hitzarmena dela. Horri esker, batez beste, ikasturte guztietan herrialde horretako hamar ikasleei harrera egiten diegu, gure fakultatean lauhileko bana igarotzen dutelarik.

## **PRAKTIKAK**

Arte Ederren Fakultateak 3. eta 4. mailako ikasleei hautazkoa den praktika programa bat eskaintzen die, enpresaren eremuan hezkuntzarako lankidetzak egiteko. Horren helburua da ikasleak bere ikasketekin harremana duen lan-ingurunea ezagutzeko. Programa honek akordioak ditu profil profesional guztiak hartzen dituzten 100 enpresa, erakunde publiko eta pribatuekin. Praktika hauek bateragarriak dira ikasketekin eta, gehienera jota, 450 ordukoak izango dira. Halaber, hautazko sei kreditu baliozkotu ahalko dira.

## **ESKURATUTAKO GAITASUNAK**

- Pintura, eskultura, irudigintza, argazkilaritza, ikus-entzunezko eta gailu teknologikoen alorretan erabiltzen diren artearen prozesu, prozedura eta materialak ezagutu eta erabiltzea.
- Kultura ondarearen informazioa biltzea, iturri dokumental nahiz historiografikoetatik eta zaintza eta zaharberritzeko prozesuen ezagutzatik abiatuz. Horretarako beharrezkoak diren metodologia, terminologia, material eta erremintak erabiltzeko gai izango da.
- Nazioarteko eta Espainiako zaintza eta zaharberritzeko politikak ulertu eta aplikatzea, baita lanbidea burutzeko aplikagarriak diren legeak eta arauak ere.
- Batetik, kultura ondarearen materialen konposizioa eta, bestetik, erabilitako prozedura eta teknikak identifikatzea. Helburu hori lortzeko, azterketa tresna eta metodo egokiak aukeratuko dira, zaintza eta zaharberritzearen alorrean metodologia zientifikoa erabiliaz arazoak konpontzea ahalbidetuko dutenak hain zuzen ere.
- Kultura ondarearen aldaketak eta hondatzearen arrazoiak ezagutu eta identifikatzea, ondoren, kontserbazio-egoera ebaluatu eta behar duen tratamendu mota zehazteko. Kultura ondarearen erakusketan, biltegiratzean, garraioan eta gordailuan prebentziozko zaintzarako egokiak diren baldintzak ezartzea.
- Lantaldeetan parte hartzea, kudeaketa eta optimizazioari lotutako abileziak eta trebeziak garatzea. Horretarako, erabakiak hartzeko eta emaitzak ebaluatzen arazoizko irizpideak aplikatuko dira.
- Kasu bakoitzean egokienak diren esku-hartze irizpideak eta zaintza edo zaharberritzeko tratamenduak erabakitzea. Hori guztia metodologia, tratamendua eta material aproposa erabiliaz.
- Diziplinaren alderdi praktikoak lanbidearen aukera berrietara aplikatzen jakitea, esaterako: ondare historiko-artistikoaren kudeaketa, azterketa eta hedatzea burutu eta kultura ondareari lotutako zaintza, zaharberritze eta bestelako gaietan hezkuntzalanak egitea, arrazoiak kritikoak eta konpromiso etikoa sustatuz.
- Zaintza-zaharberritze proiektuak egitea. Proiektu horietan kultura ondarearekin harremana duten beste profesionalekin diziplinarteko eztabaida ezarriko da.
- Artearen Teoria eta Historiaren ulermen kritikoa egitea, gertakizun artistikoak, gizarte testuingurua eta ikonografia kontuan hartuz.
- Gertakari artistikoa identifikatzea, ideiak behatu zein adierazi eta une artistikoei lotutako sormen-prozesuaren ondorioz. Hori egiteko pintura, eskultura, irudigintza, argazkilaritza, ikus-entzunezko eta gailu teknologikoen alorretako teknika ezberdinak erabiliko dira.

## **GRADUATU PROFILA**

Kultura Ondarearen Zaintza eta Zaharberritzearen buruzko Graduak eskaintzen duen prestakuntzari esker, honakoak lortuko dira:

- Kultura ondareak aztertu, identifikatu, analizatu eta baloratuaz, bere aldaketak diagnostikatzea.
- Kultura ondarearen zaintza eta zaharberritze tratamenduak erabaki eta exekutatzeko. Horretarako, prozedura teknikoak ezagutzeko, eskuratutako abileziak eta trebetasunak erabiliko dira.
- Zaintza eta zaharberritze proiektuak idatzi eta zuzentzea eta aholkularitza teknikoa ematea.
- Beharrezko metodologia aplikatuz, zaintza eta zaharberritze prozesua planifikatu, dokumentatu eta jarraitzea.

- Kultura ondarearekin harremana duten beste profesionalekin diziplinarreko eztabaida mantentzea.
- Ikerketa egitea zaintza-zaharberritzeko lan-metodologian, kultura ondarearen ezagutzan, bere eraketan eta aldaketan arrazoietan.
- Halaber, ikasleak etorkizunean graduondokoak zein masterrak autonomia osoz burutzeko premiazkoak izango zaizkion ikasketak gaitasunak eskuratuko dituzten graduan zehar.

## LAN TXERTAKETA

Zaintza-zaharberritzeko titulatu gehienek ikasketak amaitzen dituztenean erraz aurkitzen dute beren ikasketekin zerikusia duen lanen bat. Esaterako, museoetan, artxiboetan, liburutegietan, ondarea babesteko zentro ofizialetan, enpresa pribatuetan edo profesional autonomo gisa.

Euren betebeharren artean, batez ere, honakoak burutzen dituzte: enpresa edo erakunde publiko zein pribatuei lotuta, zaintza-zaharberritze lanak zuzendu, egin eta aholkatzea; prebentziozko zaintza; erakusketen muntaia edo artelanen garraioa; aseguru-enpresei kultura ondareen zaintzari buruzko aholkularitza ematea; irakaskuntza eta ikerketa.

Ikerketa funtsezkoa da zaintza-zaharberritzerako eta, beraz, bereziki sustatu behar den lanbide-jardura da. Aurrerapen teknologikoak premiazkoak dira bai kultura ondareen eraketan, bai aldaketa-fenomenoak ulertzeko, baita tratamendu egokiak aurkitzeko ere. Hori guztia, kultura ondareen materialtasunarekin eta berezkoak zaizkien balioekin bateragarriak izanez.

### KULTURA ONDAREAREN ZAINZA-ZAHARBERRITZEAREN EREMU PROFESIONALAK:

#### - ZAINZA-ZAHARBERRITZEAN JARDUTEA

Kultura ondareen zaintzaile-zaharberritzailea. Espezialitatearen arabera, museoetan, artxiboetan, biblioteketan, kultura ondareen gordailuzain diren fundazioetan, edo bestelako erakunde publiko zein pribatuetan, edo ondarea babesteko erakunde ofizialetan.

Kultura ondareen zaintzaile-zaharberritzaile aritzea, bai langile autonomo edo enpresaburu moduan bai enpresa batentzat soldatako langile moduan.

#### - PREBENTZIOZKO ZAINZA

Museoetan, artxiboetan, biblioteketan, kultura ondareen gordailuzain diren fundazioetan, edo bestelako erakunde publiko zein pribatuetan, edo ondarea babesteko erakunde ofizialetako bildumen prebentziozko zaintzaren arduraduna.

Kultura ondareen prebentziozko zaintzaren arduraduna, bai langile autonomo edo enpresaburu moduan bai enpresa batentzat soldatako langile gisa.

#### - AHOLKULARITZA TEKNIKOA

Erakusketen muntaian, artelanen garraioan, hondamendien aurrean prebentziozko planetan eta, oro har, prebentziozko zaintzetan aholkularitza ematea.

Zaintza-zaharberritze tratamenduei buruz eta kultura ondareen kontserbazio-egoerari buruz aholkularitza ematea honakoei: banakoei, aseguru-enpresei, kultura ondareen enkante edo merkaturatzeko enpresei, kultura ondareen gordailuzainei, ondarea babesteko zentro ofizialei.

#### - IKERKETA

Goi mailako ikastegietan (bai unibertsitatekoak, bai bestelakoak), erakunde publikoetan zein enpresa pribatuetan ikerkuntza-programa eta proiektuetan parte hartzea.

#### - ONDAREAREN KUDEAKETA

Kultura ondareen bildumen kudeaketan parte hartzea, museo, artxibo, biblioteka edo bestelako ondare erakundeen fakultatibo nahiz profesional gisa.

#### - PEDAGOGIA/ IRAKASKUNTZA

Goi mailako eskoletako irakasle. Unibertsitateko irakasle. Kultura ondarearekin harremana duten profesionalei etengabeko prestakuntza emateko irakasle. Gizarte esku-hartzea. Ikerketan edo lanbidea burutzean eskuratutako ezagutzak hedatzea.

## EZARPENAREN KRONOLOGIA

1. maila	2010/2011
2. maila	2011/2012
3. maila	2012/2013
4. maila	2013/2014

**IKASKETEN DESKRIBAPENA**

Sorkuntza eta Diseinuko Graduako titulu berriaren proposamen hau goi mailako irakaskuntzako Europako esparruari erantzuna eman eta bertan integratzeko izpiritu eta asmoarekin jaio da.

Halaber, Arte Ederren Fakultateek aspaldidanik sentitutako behar bati erantzuna eman nahi dio. Europako konbergentzia-prozesua aurrera joan ahala gero eta argiago geratu da prozesu honek Diseinuko unibertsitateko ikasketen egoera (gure kasuan, Sorkuntza eta Diseinua izenez ezagunak) erregularizatzeko aukera paregabea eskaintzen duela. Egiaz, ikasketa hauen egoera hori nahasia eta konplexua izanik, Europako konbergentzia behin betiko ezartzen denean, titulatu espainiarren kaltetan joan baitaiteke.

Arteak dituen hedakuntza alorren, aplikagarritasunen eta zerbitzuen artean, diseinuak, zentzu zabal batean ulertuta, (diseinu grafikoa, multimedia, produktuarena, eta abar) badu gizartean tradizio, onspen eta garrantzia. Diseinuaren berriazko alorraz gain, jarduteko eremu ezberdinak sailka daitezke, hala nola, irudiztatzea, arkitektura, eszenografia, argitalpena, eta abar. Edozelan ere, gizarteak alor honetan egiten duen eskaera egoeraren arabera denez beti, Sorkuntza eta Diseinuko Graduak aplikazio zehatz horiei erantzuna emateaz gain, arteak zerbitzua eman dezakeen eta aplikagarri den bestelako aukeretan ere lan egiten du.

**SARTZEKO PROFILA**

Sorkuntza eta Diseinuko Graduaren sartuko den ikasle orok honakoak garatu behar izan ditu: kultur eta artearekiko interesa; norbere sentsibilitate estetikoa garatzeko ardura; irmotasuna, malgutasuna, iragazkortasuna eta motibazioa premiazkoak dituen ikasketetan murgiltzeko alde zuzeneko jarrera eta baita praktika artistikoari lotutako erremintak eta materialak oinarrizko mailan erabiltzea ere. Horrez gain, komenigarria da arte plastikoetan zein artearen historian oinarrizko ezagutzak edukitzea, bai batxilergo artistikoaren bidez bai beste edonola lortutakoak.

**IKASKETEN ANTOLAKETA**

Mota	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila	Guztira
Jakintza-adarreko oinarrizko irakasgaiak	60				60
Beste jakintza-adarretako oinarrizko irakasgaiak					
Nahitaezkoak		60	42	18	120
Kanpoko praktikak					
Gradu Amaierako Lana				18	18
Hautazkoak			18	24	42
<b>Guztira</b>	<b>60</b>	<b>60</b>	<b>60</b>	<b>60</b>	<b>240</b>

## TITULAZIOAREN PROGRAMA

Sorkuntza eta Diseinuko Gradua irakasgai ezberdinak biltzen dituzten lau mailatan egituratua dago. Lehenengo bi mailak, urte osoko irakasgaiak dituztenak, Arteko Graduaren eta Kultura Ondareen Zaintza eta Zaharberritzeari buruzko Graduaren berdinak dira. 3. eta 4. mailatan aldiz, irakasgaiak lauhilekoak dira eta Sorkuntza eta Diseinua sendotzera bideratuak daude. Maila hauetako hautazko irakasgaiak hiru espezialitatetan banatzen dira: Irudiztatzea, Diseinu Grafikoa eta Eremu Objektuala: Zeramika. Ikasleak hautazko irakasgaiak espezialitate bat itxuratzeko aukera ditzake edo intereseko beste irizpideren bati jarraituz.

Bigarren mailan bereziki aipagarria da “Teknologiak eta Prozesuak” irakasgaia. Grafikari, eskulturari eta pinturari dagozkien prozesu zein teknologiak aztertu, analizatu eta esperimentatzera bideratutako sailarteko irakasgaia da hau.

1. eta 2. mailan aldiz, “Laborategia” irakasgaia nabarmenduko genuke eta 3. mailan “Proiektuak I eta II”. Irakasgai hauek diziplina batetik bestera igartzeko aukera ematen duten espazioak eskaintzen dituzte, horrelaxe gertatzen baita modu naturalean artearekin lotutako jardun profesional askotan.

Gradu honetan irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak saiotan egituratuak daude eta, gaitasunak lortzeko helburuarekin, irakasgaiak izaera praktikoa dute gehien bat. Etengabeko ebaluazioa egingo da ataza eta proposamenen arabera, ikasgelako lanei jarraipena eginez. Jarraian aipatzen direnak balioesten dira: banakako lana, motibazioa, proposatutako jardueretan interesa izan eta parte hartzea, taldean nahiz ikasgelan esandakoak, lantaldeetan lankidetzan aritzea, jarduerak eta proposamenak garaiz egitea. Hori dena irakasgai eta maila bakoitzeko gaitasunen lorpen-mailaren arabera. Gradu amaierako lana nahitaezko lan bat da, 18 kreditu dituena eta gradu azken seihilekoan burutzen dena. Lana teoriko eta praktikoa izango da eta epaimahai baten aurrean defendatu beharrekoa. Tituluari lotutako gaitasunak lortu diren ala ez ebaluatzea du xede.

Sorkuntza eta Diseinuko Graduaren lehenengo bi mailak euskaraz edo gaztelaniaz ikas daitezke oso-osorik. Gainera, Eleaniztasun Planari jarraituaz, etorkizunean hainbat irakasgai ingelesez eskaintzea posible izango litzateke.

### **Irudiztatze minorra (30 ECTS)**

Irudiztatzearen eremuan proposatzen den minor hau hiru arlotan egituratua dago. Arlo teorikoaren barnean irudiztatzearen historia, korrante ezberdinak eta irudiztatze garaikidea ikasten dira. Arlo praktikoan, batetik, tailerrean egindako lan praktikoa bat egingo da eta, bestetik, analisi teorikoa bat. Modu horretan, emaitzen berehalakotasunetik haratago joan nahi da. Arlo teknologikoari eutsiaz, irudiak (digitalak zein mugimenduzkoak) sortzeko azken belaunaldiko teknologien presentzia indartsua dela-eta, arlo honek ikerketa espezifikoa premiazkoa du ekoizpen eremua ordenatu eta ikerketa ideologizatua berrantolatzeke. Modu horretan, teknologia tradizionalak integratu ahalko dira egungo zurruntasunaren hautu moduan, beti ere etorkizuneko irudien genesisia kontuan harturik.

### **Diseinu Grafikoko minorra (30 ECTS)**

Diseinu grafikoa, gehien bat arte grafikoen eta ikusmen-komunikazioen sektorean, gero eta garapen handiagoa izaten ari da. Horrekin batera, azken urteetan teknologia ere azkar eboluzionatu da. Guzti hau horrela izanik, gure gizarteak sektore hauetarako gero eta aditu gehiago eskatzen ditu.

Minor honetan honakoetan sakonduko da: ikusmen-komunikazioaren oinarri kontzeptualetan, teorian eta praktikan, lengoaietan eta teknologietan, sormenezko eta komunikaziozko alderdietan, ekoizpeneko eta errealizaziozko bide eta prozesuetan, aplikazio-euskarri ezberdinetan eta gestio- nahiz lan-alderdietan. Eduki hauek teorikoki zein praktikoki lantzen dira, proiektuak garatuz. Gainera, diseinu grafikoaren alorreko sektore profesionalera zein unibertsitateko irakaskuntza eta ikerkuntzara bideratuak daude.

Diseinu Grafikoko minorraren proposamen hau honakoetan oinarritu da: batetik, goi mailako irakaskuntzako Europako sistemak ederki mugatu eta ezarri duen profil akademikoan eta, bestetik, diseinu grafikoaren alorrean dagoen errealitate profesionallean. Errealitate hori hainbatek definitua izan da, esaterako hauek: nazioarteko erakunde ofizial arautzaileek, diseinatzaileen elkarte profesionalak, diseinuko estudioek, langile autonomoek, espezializatutako aldizkariak, biltzarrek, Espainiako zein nazioarteko sariak, diseinua sustatzeko erakunde publikoak, diseinua garatzeko ministerioen programek, eta abar.

## Eremu Objektuala: Zeramikako minorra (30 ECTS)

Minor honetan zeramikaren alde egin da apustua. Izan ere, diziplina honen garapena gizakiarenaren pareko joan da beti eta, aukera berriak izan aldera, unean-uneko beharrak ase eta egoera berrietara moldatu da. Bistan dago lurraren nahiz suaren ezagutza izateak aukera zabalak eskaintzen dituela egungo artean eta bestelako aplikazio eremuetan.

Arte Ederren Fakultatean zeramikako alorra bere presentzia finkatzen joan da bi alderdiri esker: bata, tartean dauden irakasgaietako irakasleen ahalegin eta konpromisoari esker, izan ere, gaiarekiko identifikazio pertsonal eta profesionalak zeramikako profila garatzera eraman gintuen. Bestea, zeramikak duen potentziala, buztinen nolakotasun inplizituak, ezaugarriak, propietateak, ugaritasuna, alorren aniztasuna eta arte ederren eremuan duen errotzea.

LEHENENGO MAILA	KREDITUAK	LAUHILEKOA	MOTA (N/H)
Artea eta Teknologia I	9	Urte osokoa	N
Irudigintza I	9	Urte osokoa	N
Eskultura I	9	Urte osokoa	N
XX. Mendeko Artearen Historiarako Sarrera	6	Urte osokoa	N
Irudien Laborategia	9	Urte osokoa	N
Materialen Laborategia	9	Urte osokoa	N
Pintura I	9	Urte osokoa	N

BIGARREN MAILA	KREDITUAK	LAUHILEKOA	MOTA (N/H)
Artea eta Teknologia II: Teknikak eta Prozesuak	9	Urte osokoa	N
Irudigintza II	9	Urte osokoa	N
Eskultura II	9	Urte osokoa	N
Artearen Historia Orokorra	6	Urte osokoa	N
Laborategia	9	Urte osokoa	N
Pintura II	9	Urte osokoa	N
Teknologiak eta Prozesuak	9	Urte osokoa	N

HIRUGARREN MAILA	KREDITUAK	LAUHILEKOA	MOTA (N/H)
Hiriko Ingurunea/ Espazioa	6	Lehenengoa	N
Multimedia-sorkuntzak	6	Lehenengoa	N
Diseinu Grafikoa	6	Lehenengoa	N
Diseinuaren Historia Orokorra	6	Bigarrena	N
Proiektuak I	6	Lehenengoa	N
Proiektuak II	6	Bigarrena	N
Proiekturako Baliabideak	6	Lehenengoa	N
Artea eta Funtzioa (*)	6	Bigarrena	H
Komikia (+)	6	Bigarrena	H
Zeramikaren Alorretik (*)	6	Bigarrena	H
Diseinu Grafiko Interaktiboa (=)	6	Bigarrena	H
Euskararen Araua eta Erabilera	6	Bigarrena	H
Testuen Irudiztatzea (+, =)	6	Bigarrena	H

LAUGARREN MAILA	KREDITUAK	LAUHILEKOA	MOTA (N/H)
Ikusmenezko Kultur Garaikidearen Testuinguruak eta Praktikak	6	Bigarrena	N
Sormen eta Berrikuntzako Prozesuak eta Metodologiak	6	Lehenengoa	N
Profesionalizazioa eta Kudeaketa	6	Bigarrena	N
Zeramika eta Sorkuntza (*)	6	Lehenengoa	H
Zeramika eta Diseinua (*)	6	Lehenengoa	H
Ikusmenezko Hezkuntza eta Kultura	6	Lehenengoa	H
Ontziratzea eta Paketatzea (=)	6	Lehenengoa	H
Argitalpen-grafika (=)	6	Lehenengoa	H
Grafika teknologikoa (+, *)	6	Lehenengoa	H
Ikusmenezko Nortasuna (=)	6	Lehenengoa	H
Komunikazioa Euskaraz: Arteak	6	Lehenengoa	H
PaperArt: Paper-zuntzak Artesormenean. Ekoizpena eta Argitalpena (+)	6	Lehenengoa	H
Prototipoa eta Argitalpena (+)	6	Lehenengoa	H
Adierazteko Sistemak	6	Lehenengoa	H
Gradu Amaierako Lana	18	Bigarrena	N

(\*) Eremu Objektuala: Zeramikako minorra

(+) Irudiztatzeko minorra

(=) Diseinu Grafikoko minorra

## MUGIKORTASUN PROGRAMAK

UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatea ikasleen mugikortasuna planifikatu eta kudeatzen aitzindari izandako ikastegietako bat da.

Sicue/Seneca programa ikasleak estatuko beste unibertsitate batera mugitzeko. Gure ikastegiak bi aldeko hitzarmenak ditu Espainiako Arte Ederren hamabi fakultaterekin eta ikasleei hogeit hamar mugikortasun plaza baino gehiago eskaintzen dizkie.

Socrates/ Erasmus programa. Programa hau ikasleak, irakasleak eta, duela gutxitik hona, administrazio eta zerbitzuetako langileak Europako unibertsitateetara mugitzeko da; noski, UPV/EHUk unibertsitate horiekin hitzarmenak sinatuta dauzka. Gure kasuan, ikastegi horiek honako herrialdeetakoak dira: Alemania, Frantzia, Finlandia, Polonia, Errumania, Erresuma Batua, Portugal, Austria, Holanda, Bulgaria, Suitza, Norvegia eta Grezia. Trukeetarako plaza hauek zaharberitze, diseinu, ikus-entzunezko, grabatu, pintura edo eskulturakoak izan daitezke.

UPV/EHU-Latinoamerika programa. Latinoamerika eta Kariben ikasleak mugitzeko programa da. Gure ikastegiak zortzi herrialde ezberdinetara ikasleak mugitzeko hamar plaza inguru eskaintzen ditu. Azpimarratzekoak dira Mexikoko Escuela Nacional de Arte (UNAM) eta Argentinako UMSArekin sinatutako hitzarmen espezifikoak, biak ospe onekoak.

Beste norakoak programa Amerikako Estatu Batuak, Errusia, Kanada eta Asiako unibertsitateetara mugitzeko.

Nabarmendu nahi dugu API hitzarmena gure fakultateak Amerikako Estatu Batuetako ikastegiekin espezifiki sinatutako hitzarmena dela. Horri esker, batez beste, ikasturte guztietan herrialde horretako hamar ikasleri harrera egiten diegu, gure fakultatean lauhileko bana igarotzen dutelarik.

## PRAKTIKAK

Arte Ederren Fakultateak 3. eta 4. mailako ikasleei hautazkoa den praktika programa bat eskaintzen die, enpresaren eremuan hezkuntzarako lankidetzara egiteko. Horren helburua da ikasleak bere ikasketekin harremana duen lan-ingurunea ezagutzea. Programa honek akordioak ditu profil profesional guztiak hartzen dituzten 100 enpresa, erakunde publiko eta pribatuekin. Praktika hauek bateragarriak dira ikasketekin eta, gehienera jota, 450 ordukoak izango dira. Halaber, hautazko sei kreditu baliozkotu ahalko dira.

## ESKURATUTAKO GAITASUNAK

- Artearen jakintza, jakintza tekniko gisa aitortzea.
- Artea egiteko lengoia eta lan-eremuekin erlazionatutako material, prozedura, teknologia eta trebetasun teknikoak maneiatzea; modu horretan, aplikazio eremu ezberdinei lotutako arazoak ebazteko erabili ahalko dira.
- Ideiak sortzeko eta eurak eremu ezberdinetako ekoizpen eta ulermenera aplikatzeko helburuarekin, berrikuntza estrategiak, pentsamendu heuristikoko baliabideak, ikerketa eta eztabaida kritikoa eta sormenezko metodologiak erabili eta ezagutzea.
- Oinarrizko ezagutzak izatea, atzerriko hizkuntza bat jakitea, planteamendu fasetik ekoizpen fasera arte proiektuak egiteko printzipio, trebetasun, metodo eta metodologiak maneiatzea, bai modu autonomoan bai diziplinarteko taldeetan integratuta.
- Itxurapen eta proiektatzeko bitartekoak erabiltzea: prototipoak, hiru dimentsiotako modeloak, irudiak eta baliabide informatikoak.
- Egindako lan-proiektuetatik eratorritako informazioa, ideiak, arazoak eta konponbideak hedatzeko erakusketa eta exenplifikazio teknikak aplikatzea.
- Artea eta diseinuaren historia, teoria eta nozioak izatea, baita sortzaileen ekoizpen materiala eta pentsamoldea ezagutzea ere, euren obra eta idatzien bidez.
- Lan eremu ezberdinetako informazio iturriak eta praktika eguneratua identifikatu eta ezagutzea. Aldi berean, artea eta diseinuaren eremuko zientzi metodologia ere ezagutzea.
- Proiektuak kudeatzea.
- Arte-gertakizunen eta hauek jazotzen diren gizarte-testuinguruen arteko harremana igarri eta bere funtzioen eta esanahien garrantziaz kargu egitea. Horrez gain, artearen historiaren nahiz kultur garaikidearen gainean gogoeta egin eta ikuspuntu kritikoa bereganatzea. Halaber, berdintasun, bakearen kultura eta diskriminazio ezaren balioak eskuratzea.

## GRADUATU PROFILA

Arteko graduatuak arteari berezkoak zaizkion ezagutzetan adituak dira. Hala ere, badute profil espezifikoa bat gizartearen eta kulturaren intereserako diren hainbat arlotan euren ezagutzak eta teknikak aplikatzeko. Esan genezake ikasle hauek, oro har, sorkuntza eta diseinuaren alorrean jantziak direla. Graduan eskuratutako ezagutzei esker, jarraian aipatzen diren eremuetan lan egiteko prest daude: diseinu grafikoan eta ikusmen-komunikazioan, objektuen diseinuan (teknologia baxuko objektuak), hirigunean eta hiri-eremuan, irudiztatzean, berrikuntzan, irudiarekin, komunikazioarekin eta enpresarekin harremana duten eremuetan eta zeramikaren arte-praktikan.

Sorkuntza eta Diseinuko graduatuek Espainiako ikastegietan zein antzeko maila duten Europako ikastegietan graduondoko ikasketak edo masterrak burutzeko onartuak izateko adina ikasketa-gaitasun lortuko dituzte.

## LAN TXERTAKETA

Sorkuntza eta Diseinuko graduatuek honakoetan lan egin dezakete:

- Diseinuko estudioak edo enpresak eta publizitateko enpresak. Bertan, diseinuarekin lotutako jarduerak egingo dituzte, proiektuarenak eta teknikarenak diren aldeak ebatziz, sortzeko lehenengo fasetik hasita ekoizpen eta hedapeneko azken fasera arte.
- Irudigilea, autonomia zein diseinu edo publizitate enpresa batean integratutakoa.
- Goi mailako edo erdi mailako ikasketetan irakasle, marrazketa, diseinua eta teknologia berriak irakasten.
- Irudi, komunikazio eta enpresen alorrean proiektu berritzaileak garatzen.
- Zeramikarekin erlazionatutako arte-praktikan, dela bere kabuz dela enpresa batean txertatuta.
- Arte grafikoen enpresetan, diseinatzaile gisa edo lantaldeetan integraturik.

## EZARPENAREN KRONOLOGIA

<b>1. maila:</b>	2010/2011
<b>2. maila:</b>	2011/2012
<b>3. maila:</b>	2012/2013
<b>4. maila:</b>	2013/2014

**IKASKETEN DESKRIBAPENA**

Ikasketa hauen helburu nagusia da tituludunak prestatzea, tituludunek ikasketa horietarako definitutako profil profesionala lor dezaten, oinarrizko eskubideak eta aukera-berdintasuna errespetatuta. Marko orokor horren barruan honako helburu hauek lortu nahi dira:

- Ikasleei prestakuntza orokorra ematea, betiere ingeles hizkuntza, hizkuntzalaritza, literatura eta kulturaren esparruan beharrezkoak diren oinarri teoriko eta metodologikoak irakatsiz.
- Ingeles hizkuntzan prestakuntza ematea bai ahozko hizkuntzan, bai idatzizkoan, hizkuntza- eta kultura-aniztasunak duen garrantzia azpimarratuz.
- Ikasleei komunikazio-trebetasunak eta trebetasun didaktikoak irakastea, ingeles hizkuntza, kultura eta literaturari buruzko ideia eta eduki konplexuak transmititu ditzaten, eta lortutako ezagutzak beste arlo nahiz diziplina akademiko zein profesionalekin erlazionatzeko gaitzea.
- Arazoak ebaluatzerakoan eta erabakiak hartzerakoan analisi kritikoa bultzatzea eta lidergo-espirtua indartzea, ikasleak prestatuta egon daitezen gero honako esparru hauetan jardun ahal izateko: espezializazioa, ikerketa, argitaletxeen industriarekin lotutako jarduerak, artxiboak eta liburutegiak, enpresak, eta kulturaren eta irakaskuntzaren arloko erakundeak.
- Irakaskuntza autonomia eta etengabeko prestakuntza bultzatzea eta hizkuntzen, hizkuntzalaritzaren eta kulturen arteko komunikazioaren esparruan beste profesional batzuekin talde-lanean aritzeko gaitzea.

**SARRERAKO PROFILA**

Ingeles Ikasketetako ikasleek gai izan behar dute ingelesez eta gazteleraz edo euskaraz komunikatzeko. Horrez gain, hizkuntzak eta horien literaturak ezagutzeko jakin-mina dutela erakutsi behar dute, baita horiek historian zehar izan duten bilakaera zein izan den jakitekoa ere. Halaber, sintesirako oinarrizko trebetasuna dutela erakutsi behar dute eta ikasketen bitartez garatuko dituzten arrazoiketa eta abstrakziorako ahalmena ere badutela; beharrezko bestelako ezaugarriak dira irakurketa gustuko izatea, mintzaera eta idazkera zuzena lortu nahi izatea eta ikerketarako eta datuen antolaketarako iniziatiba eta dohaina izatea.

**IKASKETEN ANTOLAKETA**

<b>Mota</b>	<b>1. maila</b>	<b>2. maila</b>	<b>3. maila</b>	<b>4. maila</b>	<b>Totala</b>
<b>Jakintza-adarreko oinarrizko irakasgaiak</b>	36	24	-	-	60
<b>Beste jakintza-adar batzuetako oinarrizko irakasgaiak</b>	-	-	-	-	-
<b>Nahitaezko irakasgaiak</b>	24	36	36	30	126
<b>Hautazko irakasgaiak</b>	-	-	24	24	48
<b>Gradu-amaierako lana</b>	-	-	-	6	6
<b>Maila bakoitzean, guztira</b>	60	60	60	60	<b>240</b>

## **TITULAZIOAREN PROGRAMA**

Ingeles Ikasketetako gradua ingeles hizkuntza, lite

## **Bigarren Hizkuntzako Minorra:**

- Euskara
- Espainola
- Frantsesa
- Alemana
- Hizkuntza Klasikoak
- Errusiera

Bigarren Hizkuntza III

Bigarren Hizkuntza IV

Bigarren Hizkuntzaren Gramatika I

Bigarren Hizkuntzaren Gramatika II

Bigarren Hizkuntzaren Literatura I

Bigarren Hizkuntzaren Literatura II

## **Bestelako Hautazkoak**

Hirugarren Hizkuntza I

Hirugarren Hizkuntza II

Hirugarren Hizkuntza III

(\*) Euskarazko eskaintza

Nahitaezko irakasgaiak ingelesez ematen dira

## **MUGIKORTASUN PROGRAMAK**

SICUE, EIP-ERASMUS, UPV/EHU-AL ETA BESTE NORAKO BATZUK programen barruan egiten diren mugikortasun-ekintzen helburu nagusia da ikasleek aukera izan dezatela euren titulazioari dagozkion gaitasun orokor eta zehatzak lortzeko, Espainiako, Europako, Latinoamerikako eta/edo munduko beste herrialde batzuetako unibertsitateetako ikasle eta irakasleekin bizi diren artean.

Mugikortasun-programak UPV/EHUko araudi orokorrak arautuko ditu eta Letren Fakultateko Mugikortasuneko Dekanordetzak koordinatuko ditu.

## **PRAKTIKAK**

Kanpoko praktikak borondatezkoak dira eta horien helburua da lortutako gaitasunak esparru profesional zehatz baten aplikatzea.

Ikasleek egiten dituzten kanpoko praktikak hautazko 12 ECTS krediturekin baliozkotu ahalko dira gehienez. Kanpoko praktikak UPV/EHUko araudi orokorrak arautuko ditu eta Letren Fakultateko Praktiken Dekanordetzak koordinatuko ditu.

## **LORTUTAKO GAITASUNAK**

- Edozein motatako ingelesezko diskurtso zabalak (ahozkoak zein idatzizkoak) komunikatzeko (ekoizteko nahiz ulertzeko) gai izatea.
- Ingelesez hitz egiten den herrialdeetako historia, zibilizazioa eta kultura ezagutzea.
- Ingelesaren gramatika eta erabilera aztertu, laburbildu eta azaltzea.
- Ingeles literatura ulertu, aztertu eta interpretatzea, eta ingelesez idatzitako testu eta dokumentuak kritikoki ebaluatzeko gai izatea.
- Ingelesaren historia, bilakaera eta gaur egungo aldaerak ezagutzea.
- Bigarren hizkuntza batean idatzitako testu korapilatsuen ideia nagusiak ulertzea, eta hizkuntza hori erraz eta jarioz erabiltzea, ahoz nahiz idatziz.
- Graduaren ezagutza espezifikoa beste arlo eta diziplina batzuekin lotzea, eta ezagutza hori transmititzea, ondorengo ikasketetan aplikatu dadin eta hizkuntza- eta kultura-aniztasunarekiko tolerantziatzeko jarrera integratzaileak bultzatu daitezen.
- Autonomiarekin eta taldean lan egitea, eskuratutako teknika eta tresnak erabiliz.
- Testuinguru akademiko desberdinetan lortutako ezagutzak transmititzea testuinguru profesional desberdinen praktikatzen.
- Ahoz nahiz idatziz zuzentasunez komunikatzea EAEko hizkuntza ofizialetako batean.

## **GRADUATU PROFILA**

Graduatuek prestakuntza orokorra eta sendoa izango dute hizkuntzan eta literaturan, ezagutza sakonak izango dituzte ingeles hizkuntza, literatura, historia eta kulturarekin lotutako gaitan eta hizkuntzalaritza-, filologia- eta literatura-ikasketarako analisi-metodologietan eta horiek arlo zein diziplina akademiko nahiz profesionaletan aplikatzen jakingo dute.

Graduatuek honako hauek egiteko gaitasuna izango dute: komunikatu, testuak aztertu eta kritikatu, datuak interpretatu, ezagutzak aplikatu, ikasitako informazioa hartu eta transmititu, ikuspegi kritikoa erabiliz arrazoitu eta informazio bibliografikoa eta tresna informatikoak erabili.

Gaitasun horiek ezinbestekoak dira gradu honentzat proiektatu daitezkeen ia jardura profesional guztietarako, izan ere, jardura horietako gehienek komunikazio zuzena (irakaskuntza, komunikabideak, interpretazioa, kultur aholkularitza) edo zeharkakoa (kulturaren industria, itzulpengintza, etab.) eskatzen baitute.

## **LANERATZEA**

Batetik, gradu honek irakaskuntza eta ikerketarekin zuzenki lotutako lanbideetan jarduteko prestakuntza ematen du, hala nola:

- Hizkuntza eta kulturako irakaslea (Bigarren Hezkuntzan, irakaskuntzan jarduteko beharrezko masterra lortu ondoren)
- Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea (aurretiko pausua, masterren bitartez zabandu daitekeena)

Bestetik, lortutako ezagutzak eta gaitasunak beste lanbide batzuetan aplikatzea errazten du, hala nola:

- Hizkuntza-aholkularitza eta plangintza
- Testuen edizioa eta zuzenketa (hizkuntzarekin, literaturarekin eta kulturarekin lotutako gaiak)
- Hizkuntza- eta literatura-aholkularitza hezkuntzan, publizitatean, komunikabideetan eta kultura-enpreetan.
- Hizkuntza, literatura eta kulturari buruzko multimedia-euskarrien sorrera, dokumentazioa eta zabalkuntza.
- Literatur kritika
- Turismoaren inguruko aholkularitza teknikoa eta gestioa
- Kultur zerbitzuen, hizkuntza- eta kultura-bitartekaritzaren, nazioarteko harremanen eta giza baliabideen inguruko aholkularitza teknikoa eta gestioa.
- Herri-administrazioak (bereziki ikasten diren hizkuntzen eta horien kulturaren ezagutzak eskatzen dituzten esparruak)

## **EZARPEN KRONOLOGIA**

**Lehenengo maila:** 2010-2011

**Bigarren maila:** 2011-2012

**Hirugarren maila:** 2012-2013

**Laugarren maila:** 2013-2014

**IKASKETEN DESKRIBAPENA**

Ikasketa hauen helburu nagusia da tituludunak prestatzea, tituludunek ikasketa horietarako definitutako profil profesionala lor dezaten, oinarrizko eskubideak eta aukera-berdintasuna errespetatuta. Marko orokor horren barruan honako helburu hauek lortu nahi dira:

- Ikasleei prestakuntza orokorra ematea, betiere euskal hizkuntza, hizkuntzalaritza, literatura eta kulturaren esparruan beharrezkoak diren oinarri teoriko eta metodologikoak irakatsiz.
- Euskal hizkuntzan prestakuntza ematea bai ahozko hizkuntzan, bai idatzizkoan, hizkuntza- eta kultura-aniztasunak duen garrantzia azpimarratuz.
- Ikasleei komunikazio-trebetasunak eta trebetasun didaktikoak irakastea, euskal hizkuntza, kultura eta literaturari buruzko ideia eta eduki konplexuak transmititu ditzaten, eta lortutako ezagutzak beste arlo nahiz diziplina akademiko zein profesionalekin erlazionatzeko gaitzea.
- Arazoak ebaluatzerakoan eta erabakiak hartzerakoan analisi kritikoa bultzatzea eta lidergo-espirtua indartzea, ikasleak prestatuta egon daitezen gero honako esparru hauetan jardun ahal izateko: espezializazioa, ikerketa, argitaletxeen industriarekin lotutako jarduerak, artxiboak eta liburutegiak, enpresak, eta kulturaren eta irakaskuntzaren arloko erakundeak.
- Irakaskuntza autonomia eta etengabeko prestakuntza bultzatzea eta hizkuntzen, hizkuntzalaritzaren eta kulturen arteko komunikazioaren esparruan beste profesional batzuekin talde-lanean aritzeko gaitzea.

**SARRERAKO PROFILA**

Euskal Ikasketetako ikasleek gai izan behar dute euskaraz eta gazteleraz (edo, euren ama hizkuntza den beste hizkuntza bat erabiliz) komunikatzeko. Horrez gain, hizkuntzak eta horien literaturak ezagutzeko jakin-mina dutela erakutsi behar dute, baita horiek historian zehar izan duten bilakaera zein izan den jakitekoa ere. Halaber, sintesirako oinarrizko trebetasuna dutela erakutsi behar dute eta ikasketen bitartez garatuko dituzten arazoiketa eta abstrakziorako ahalmena ere badutela; beharrezko bestelako ezaugarriak dira irakurketa gustuko izatea, mintzaera eta idazkera zuzena lortu nahi izatea eta ikerketarako eta datuen antolaketarako inizatiba eta dohaina izatea.

**IKASKETEN ANTOLAKETA**

<b>Mota</b>	<b>1. maila</b>	<b>2. maila</b>	<b>3. maila</b>	<b>4. maila</b>	<b>Totala</b>
<b>Jakintza-adarreko oinarrizko irakasgaiak</b>	48	12	-	-	60
<b>Beste jakintza-adar batzuetako oinarrizko irakasgaiak</b>	-	-	-	-	-
<b>Nahitaezko irakasgaiak</b>	12	48	36	30	126
<b>Hautazko irakasgaiak</b>	-	-	24	24	48
<b>Gradu-amaierako lana</b>	-	-	-	6	6
<b>Maila bakoitzean, guztira</b>	60	60	60	60	<b>240</b>

## TITULAZIOAREN PROGRAMA

Euskal Ikasketetako gradua euskal hizkuntza, literatura eta kulturako edukien inguruan antolatuta dago eta **Euskal Ikasketetako Maiorraren** baliokidea da. Egin behar diren oinarritzko eta nahitaezko irakasgaiak honako hauek dira:

### Lehenengo maila

Mintzaera eta Idazkera I  
Mintzaera eta Idazkera II  
Ingelesa I\*\*  
Ingelesa II\*\*  
Hizkuntzalaritza I  
Hizkuntzalaritza II  
Mundu Garaikidearen Oinarriak  
Euskal Gramatika I  
Latina  
Literaturaren Teoria

### Bigarren maila

Euskal Filologiaren Hastapenak  
Euskal Dialektologia  
Euskal Fonetika eta Fonologia I  
Euskal Morfologia  
Euskal Gramatika II  
Euskal Literatura I  
Euskal Testuak I  
Euskal Testuak II  
Bigarren Hizkuntza I  
Bigarren Hizkuntza II

### Hirugarren maila

Euskararen Didaktika  
Euskal Fonetika eta Fonologia II  
Euskararen Gramatika Historikoa  
Soziolinguistika eta Euskararen Plangintza eta Arautzea  
Tipologia  
Euskal Literatura II

### Laugarren maila

Euskararen Historia I  
Euskararen Historia II  
Euskal Lexikologia eta Lexikografia  
Euskal Literatura III  
Euskal Sintaxia

(\*\*) Ingelesezkotako eskaintza

Hirugarren eta laugarren mailan ikasleek hautazko irakasgai eta borondatezko praktiken bitartez gainditu beharreko 48 kreditu izango dituzte. Egiten dituzten hautazko irakasgaien arabera, ikasleek honako **Minor** hauek lortu ahalko dituzte:

### **Euskal Hizkuntzalaritzako Minorra**

Euskal Morfologia eta Fonologia  
Euskal Sintaxia eta Semantika  
Euskal Pragmatika eta Hizkera  
Psikolinguistika eta Euskararen Jabetzea  
Egungo Euskararen Aldaerak

### **Euskal Literatura eta Filologiako Minorra**

Euskal Literaturaren Egungo Joerak  
Euskal Filologiaren eta Hizkuntzalaritzako Ideien Historiaren Gaiak  
Euskal Diakronia eta Onomastikaren Gaiak  
Euskal Genero eta Egileak  
Ahozko Literatura

### **Euskal Herriaren Historiako Minorra**

Euskal Herriaren Historiaurrea  
Euskal Herriaren Antzinaroko Historia  
Euskal Herriaren Erdi Aroko Historia  
Euskal Herriaren Aro Berriko Historia  
Euskal Herriaren Historia Garaikidea  
Euskal Herriaren Historia Ekonomikoa

### **Hizkuntzalaritzako Minorra**

Morfologia eta Sintaxia  
Semantika eta Pragmatika  
Hizkuntzalaritza Historikoa eta Konparatua  
Psikolinguistika  
Soziolinguistika  
Metodologia Zientifikoa eta Hizkuntza Formalak

### **Europar Literatura eta Kulturako Minorra**

Literatura Klasikoa eta haren Proiekzioa Europar Literaturan  
Latindar Erdi Aroa eta Europar Literatura  
Espainiako/Euskal Herriko eta Mundu Osoko Literatura Garaikidea  
Literatura eta Generoa  
Literatura eta beste Arte batzuk  
Europar Pentsamendua

### **Bigarren Hizkuntzako Minorra**

- Ingelesa
- Espainola
- Frantsesa
- Alemana
- Hizkuntza Klasikoak
- Errusiera

Bigarren Hizkuntza III  
Bigarren Hizkuntza IV  
Bigarren Hizkuntzaren Gramatika I  
Bigarren Hizkuntzaren Gramatika II  
Bigarren Hizkuntzaren Literatura I  
Bigarren Hizkuntzaren Literatura II

### **Bestelako Hautazkoak**

Hirugarren Hizkuntza I  
Hirugarren Hizkuntza II  
Hirugarren Hizkuntza III

## **MUGIKORTASUN PROGRAMAK**

SICUE, EIP-ERASMUS, UPV/EHU-AL ETA BESTE NORAKO BATZUK programen barruan egiten diren mugikortasun-ekintzen helburu nagusia da ikasleek aukera izan dezatela euren titulazioari dagozkion gaitasun orokor eta zehatzak lortzeko, Espainiako, Europako, Latinoamerikako eta/edo munduko beste herrialde batzuetako unibertsitateetako ikasle eta irakasleekin bizi diren artean.

Mugikortasun-programak UPV/EHUko araudi orokorrak arautuko ditu eta Letren Fakultateko Mugikortasuneko Dekanordetzak koordinatuko ditu.

## **PRAKTIKAK**

Kanpoko praktikak borondatezkoak dira eta horien helburua da lortutako gaitasunak esparru profesional zehatz baten aplikatzea.

Ikasleek egiten dituzten kanpoko praktikak hautazko 12 ECTS krediturekin baliozkotu ahalko dira gehienez. Kanpoko praktikak UPV/EHUko araudi orokorrak arautuko ditu eta Letren Fakultateko Praktiken Dekanordetzak koordinatuko ditu.

## LORTUTAKO GAITASUNAK

- Euskaraz erraztasunez, zehaztasunez eta aberastasunez komunikatzea bai ahoz, bai idatziz, hizkuntzaren erregistro eta maila nagusienetan.
- Euskararen hizkuntza-ezaugarri guztiak eta bere literatur tradizioa kritikoki aztertzea eta arlo horietan arazo teoriko eta praktikoei aurre egitea.
- Literaturaren, filologiaren edo hizkuntzaren arloko arazo zehatzak aztertu eta azaltzeko beharrezkoak diren argumentu zehatzak egituratzea filologiaren, literatur kritikaren eta hizkuntzalaritza teoriko eta aplikatuaren berezko teoria, metodo eta baliabideak oinarri hartuta.
- Lortutako ezagutzak bai irakaskuntzaren alorrean, bai hizkuntza-plangintza eta bitartekaritzaren esparruan aplikatu eta komunikatzea.
- Euskal hizkuntza eta kulturaren industriarekin lotutako arazoak aurkitu, diagnostikatu eta konpontzea.
- Jarduera-esparru desberdinetan bigarren hizkuntza bat erabili eta hizkuntza horren literaturaren eta kulturaren ezaugarri nagusiak ezagutzea.
- Diziplina berdineko taldeekin edo diziplina anitzekoekin bakarka eta elkarri lagunduz lan egitea.
- Hizkuntzarekin, literaturarekin eta kulturarekin lotutako era guztietako dokumentazioa eta informazioa aurkitu, erabili, aztertu, laburbildu eta kritikoki ebaluatzea.

## GRADUATU PROFILA

Graduatuek prestakuntza orokorra eta sendoa izango dute hizkuntzan eta literaturan, ezagutza sakonak izango dituzte euskal hizkuntza, literatura, historia eta kulturarekin lotutako gaietan eta hizkuntzalaritza-, filologia- eta literatura-ikasketetarako analisi-metodologietan eta horiek arlo zein diziplina akademiko nahiz profesionaletan aplikatzen jakingo dute.

Graduatuek honako hauek egiteko gaitasuna izango dute: komunikatu, testuak aztertu eta kritikatu, datuak interpretatu, ezagutzak aplikatu, ikasitako informazioa hartu eta transmititu, ikuspegi kritikoa erabiliz arrazoitu eta informazio bibliografikoa eta tresna informatikoak erabili.

Gaitasun horiek ezinbestekoak dira gradu honentzat proiektatu daitezkeen ia jarduera profesional guztietarako, izan ere, jarduera horietako gehienek komunikazio zuzena (irakaskuntza, komunikabideak, interpretazioa, kultur aholkularitza) edo zeharkakoa (kulturaren industria, itzulpengintza, etab.) eskatzen baitute.

## LANERATZEA

Batetik, gradu honek irakaskuntza eta ikerketarekin zuzenki lotutako lanbideetan jarduteko prestakuntza ematen du, hala nola:

- Hizkuntza eta kulturako irakaslea (Bigarren Hezkuntzan, irakaskuntzan jarduteko beharrezko masterra lortu ondoren)
- Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea (aurretiko pausua, masterren bitartez zabaldu daitekeena)

Bestetik, lortutako ezagutzak eta gaitasunak beste lanbide batzuetan aplikatzea errazten du, hala nola:

- Hizkuntza-aholkularitza eta plangintza
- Testuen edizioa eta zuzenketa (hizkuntzarekin, literaturarekin eta kulturarekin lotutako gaiak)
- Hizkuntza- eta literatura-aholkularitza hezkuntzan, publizitatean, komunikabideetan eta kultura-enpresetan.
- Hizkuntza, literatura eta kulturari buruzko multimedia-euskarrien sorrera, dokumentazioa eta zabalkuntza.
- Literatur kritika
- Turismoaren inguruko aholkularitza teknikoa eta gestioa
- Kultur zerbitzuen, hizkuntza- eta kultura-bitartekaritzaren, nazioarteko harremanen eta giza baliabideen inguruko aholkularitza teknikoa eta gestioa.
- Herri-administrazioak (bereziki ikasten diren hizkuntzen eta horien kulturaren ezagutzak eskatzen dituzten esparruak)

## EZARPEN KRONOLOGIA

**Lehenengo maila:** 2010-2011

**Bigarren maila:** 2011-2012

**Hirugarren maila:** 2012-2013

**Laugarren maila:** 2013-2014



## FILOSOFIAKO GRADUA

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea  
www.filosofia-hezkuntza-zientziak.ehu.es

### IKASKETEN DESKRIBAPENA

Izaera unibertsala duenez eta garai, kultura, hizkuntza eta jakintza guztiekin etengabeko harremana duenez, Mendebaldeko historiaren eta Gizadiaren historiaren funtsezko alderdia da Filosofia. Filosofiako ikasketen bidez, prestakuntza egokia har daiteke munduaren gaineko ikuspegiak era koherentean uztartzeko eta giza esperientziaren tradizio eta esparruen artean elkarrizketa arrazionala sustatzeko.

Ikuspegi partziala eskaintzen duten beste ikasketa espezializatu batzuk ez bezala, Filosofiak diziplina anitz biltzen ditu; horri esker, ezaugarri berezi hauek dituzte bai Filosofiak bai hartan adituak diren pertsonak:

- Arazo eta kontzeptu unibertsalak edo/eta zeharkakoak edo/eta orokorrak aztertze edo ikertze interes. Adibidez, zentzurik orokorrean ulertuta, ezagutzaren kontzeptua edo errealitatearen egituraren arazoa edo hizkuntza/mundua/pentsamendua arteko erlazioa lantzeko interesa.
- Ikuspegi integratzailea. Bereziki, naturari eta gizakiari berari buruzko ezagutzaren ikuspegi integratzailea.
- Ikuspegi kritikoa eta argudiatua, giza jardueraren askotariko alderdi teorikoei nahiz praktikoei dagokienez.
- Zientziak (zentzu orokorrean hartuta) erantzun egokirik ematen ez dien arazoen azterketa sistematizatua.
- Balioekin (balio etiko, politiko, estetiko, epistemikoekin), oro har, eta giza jokabidearen ondorioekin loturiko auzien tratamendua (Filosofia praktikoaren xedea).

### SARTZEKO PROFILA

Gogoeta filosofikoaren izaera eta Filosofia ikasteak zer jardueratarako sarbidea eskaintzen duen kontuan hartuta, gradu honetara sartzeko profil jakin bat finkatzea komeni da. Honako hauek dira profilaren ezaugarriak:

- Jarrera kritikoa eta, aldi berean, irekia edukitzea giza izatearekin loturiko arazo unibertsalei buruz.
- Jakin-min intelektuala izatea.
- Gogoeta ariketa egiteko eta argudiatzeko joera izatea.

Honako gaitasun hauek datoz profil horrekin bat:

- Analisi, sintesi eta kritikarako gaitasuna.
- Askotariko testuinguruetan murgiltzeko gaitasuna. Aniztasuna aintzat hartzea eta errespetatzea.
- Ikerketarako interesa.
- Antolaketa, planifikazio eta arazoen ebazpenerako eta erabakiak hartzeko interesa.
- Abstrakziorako eta orokortzeko gaitasuna, eta funtsezko alderdiak alderdi osagarriak bereizteko gaitasuna.

### IKASKETEN ANTOLAMENDUA:

Mota	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila	Guztira
Enborreko oinarrizko irakasgaiak	36				36
Beste enbor batzuetako oinarrizko irakasgaiak	24				24
Nahitaezkoak		60	60		120
Gradu Amaierako Lana				12	12
Hautazkoak				48	48
<b>Guztira</b>	<b>60</b>	<b>60</b>	<b>60</b>	<b>60</b>	<b>240</b>

## TITULUAREN PROGRAMA

Lehenengo maila oinarrizkoa da (humanitateetako eta gizarte-zientzietako edozein ikaslerentzat aproposa); eta, hortik aurrera, bigarren eta hirugarren mailetan, nahitaezko irakasgai guztiak landuko dituzte Filosofiako ikasleek. Azkenik, laugarren mailan, hautazko irakasgaiak besterik ez dira landuko. Laugarren mailan, bestalde, ikasleek gradu amaierako lana egin beharko dute. Ikasleek borondatezko praktikak ere egin ahal izango dituzte; praktika horien truke hautazko 6 kreditu jasoko dituzte, gehienez ere.

**GARRANTZIZKO OHARRA:** Lehen maila Antropologiako graduarekin batera egiten da, oso-osorik; gradu hori ere Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean egiten da. Bigarren mailatik aurrera, Filosofiako eta Antropologiako graduak bereizi egiten dira, baina irakasgai komun batzuk dituzte (Zientziaren Filosofia I, Zientziaren Filosofia II, Estetika Garaikidea, eta Filosofia eta Literatura. Ikus Antropologiako gradua).

**IRAKASGAIEN BANAKETA, MAILA ETA LAUHILEKOEN ARABERA**  
(Irakasgai guztiak 6 kreditukoak dira)

### **LEHENENGO MAILA**

LEHENENGO LAUHILEKOA

Pentsamenduaren Historia (I)

Antropologiarako Sarrera (I)

Filosofiarako Sarrera (I)

Soziologia

Filosofiako Oinarrizko Testuak.

**BIGARREN LAUHILEKOA:**

Pentsamenduaren Historia (II)

Antropologiarako Sarrera (II)

Filosofiarako Sarrera (II)

Etika

Antropologiako Oinarrizko Testuak

### **BIGARREN MAILA**

LEHENENGO LAUHILEKOA:

Estetika eta Arteen Teoria (I)

Filosofia Politikoa (I)

Antzinako Filosofiaren Historia

Hizkuntza Klasikoak

Logika (I)

**BIGARREN LAUHILEKOA:**

Ezagutzaren Teoria (I)

Hizkuntzaren Filosofia (I)

Erdi Aroko Filosofiaren Historia

Etika (II)

Logika (II)

### **HIRUGARREN MAILA**

LEHENENGO LAUHILEKOA:

Zientziaren Filosofia (I)

Hizkuntzaren Filosofia (II)

Filosofia Politikoa (II)

Aro Berriko Filosofiaren Historia

Metafisika (I)

**BIGARREN LAUHILEKOA:**

Estetika eta Arteen Teoria (II)

Zientziaren Filosofia (II)

Filosofia Garaikidearen Historia

Ezagutzaren Teoria (II)

Metafisika (II)

## **LAUGARREN MAILA**

### **LEHENENGO LAUHILEKOA:**

Antropologia Filosofikoa  
Garaiko Eztabaida Etikoak  
Euskararen Arauak eta Erabilera  
Gogoaren Filosofia  
Zientzien Filosofia eta Historia  
Justizia eta Eskubideak, XXI. Mendean  
Antzinako eta Erdi Aroko Filosofiako Oinarrizko Obrak

### **BIGARREN LAUHILEKOA:**

Garaiko Estetika  
Filosofia eta Literatura  
Filosofia, Zientzia eta Gizartea  
Filosofia, Logika eta Hizkuntza,  
Komunikazioa Euskaraz: Giza Zientziak eta Gizarte-zientziak (Filosofia eta Antropologia)  
Aro Berriko Filosofiako Oinarrizko Obrak  
Filosofia Garaikideko Oinarrizko Obrak

## **MODULUAK ETA IRAKASGAIAK**

Goian aipatutako irakasgai guztiak moduluka antolatuta daude. Adibidez, Filosofiaren Historia deritzon moduluaren barruan bilduta daude Antzinako Filosofiaren Historia, Erdi Aroko Filosofiaren Historia, Aro Berriko Filosofiaren Historia eta Filosofia Garaikidearen Historia ikasgaiak.

Filosofiako gradu berrian, modulu bakoitzak atxikita edukiko ditu, moduluari loturiko gaitasun espezifikoen sorta batez gainera, irakaskuntza-koordinaziorako mekanismo bat eta ebaluazio- eta jarduera-sistema propioa.

## **GAZTELANIA-EUSKARA-HIRUGARREN HIZKUNTZAREN SUSTAPENA (INGELESA)**

**EUSKARA/GAZTELANIA.** Gradu berriko oinarrizko eta nahitaezko irakasgai guztiak (hau da, lehenengo hiru mailak, oso-osorik) gaztelaniaz nahiz euskaraz eskainiko dira; hautazko ikasgaiak, aldiz, gaztelaniaz edo euskaraz izango dira.

Gradu amaierako lana euskaraz nahiz gaztelaniaz egin daiteke.

**INGELESA.** Honako irakasgai hauek ingelesez irakatsiko dira: Zientziaren Filosofia I, Hizkuntzaren Filosofia I eta Logika I.

Ingelesezko eskaintza zabaltea da xedea, ikasleek aukera zabalagoa izan dezaten eta irakasgai bat, gutxienez, ingelesez ikasi ahal izan dezaten. Filosofiako sailetan, eskolak ingelesez, frantsesez eta alemanez emateko prestatutako irakasleak daude.

## **MUGIKORTASUN-PROGRAMAK**

Ikasleen mugikortasuna areagotu egin da azken urteetan —eta datozen urteetan ere gertatuko da—, bai beste unibertsitate batzuetan egonaldiak egitera joaten diren ikasleen kopuruari dagokionez bai lekualdatzeko aukerei dagokienez ere.

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, Filosofiako gradu ikasketak egiten diren fakultateak, UPV/EHUk sustatutako mugikortasun-programetan parte hartzen du: SICUE-SENECA, ERASMUS, LATINOAMERIKA ETA BESTE TOKI BATZUK.

Programa, toki, araudi eta abarrei buruzko informazioa honako webgune honetan kontsulta daiteke:

<http://www.relaciones-internacionales.ehu.es/p274-home/es/>

## **BORONDATEZKO PRAKTIKAK**

Profil balioaniztunari dagozkion gaitasunak barneratzeko (ikus GRADUDUNAREN PROFILA), laugarren mailan borondatezko praktikak egiteko sare bat diseinatuko da. Ikasleek kreditu akademikoak eskuratu ahal zango dituzte (6 kreditu, gehienez ere). Honako erakunde eta elkarte hauek hartu dute praktika horiek antolatzeke lankidetzan jarduteko konpromisoa:

Euskal Idazleen Elkarte,

Elhuyar,

Donostiako Erietxeko Laguntzako Etika Batzordea,

Ardura Paliatiboetarako Euskal Elkarte

Tabakalera, Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa.

## **ESKURATUTAKO GAITASUNAK**

Hauek dira Filosofiako graduari dagozkion gaitasun espezifikoak:

- Teoria eta ideia filosofikoen oinarriak era aktiboan ulertzea eta era kritikoan interpretatzea, bai ikuspegi historikotik bai ikuspegi tematikotik, eta gaur egungo egoeren analisisian aplikatzea.
- Filosofiarekin lotura duten gaien buruzko hitzaldi laburrak eta ongi egituratuak irakurtzea, ulertzea, ahoz azaltzea, eztabaidatzea, kritikoki aintzat hartzea eta argudioak emanez idaztea.
- Hainbat iturritako datu adierazgarriak biltzea, arazoak ikuspegi filosofikotik eta kideko beste diziplina batzuk aintzat hartuta aztertzeke eta konpontzeke.
- Taldean nahiz bakarka lan egitea, oinarritako eskubideen errespetuan (berdintasuna, generoa...) oinarrituriko bizimoduak integratzekei begirako proiektuak gauzatzeko erabakiak hartzeke eta arazoei irtenbideak emateke.
- Arrazobideen zuzentasuna eta sendotasuna identifikatzea eta ebaluatzea, eta, hala dagokionean, falaziei antzematea; eta argudioak ematea, besteak gogatzeko moduan eta hizkuntza argi eta zehatza erabiliz.
- Askotariko hizkuntza-erregistroak (akademikoa, dibulgaziokoa eta lagunartekoa) erabiltzea, norberaren hizkuntzan, Filosofiako terminologia erabiltzea, eta diskurtso filosofikoak ulertzea, EBko gutxienez beste bi hizkuntzatan.
- Konpromiso sozialak eta etikoak hartzea, desberdintasuna eta aniztasuna errespetatzea eta egoera berrietara moldatzeko, malgutasunez jokatzeko eta irudimenez aritzeko gaitasuna izatea.
- Informazioaren teknologiak erabiltzea datuak biltzeke eta trukatzeko: testu-prozesadorea, posta elektronikoa, Internet, bibliografia-datuen baseak...

## **GRADUDUNAREN PROFILA**

Goian aipatutako gaitasunak hartuz, gradudunak jasoko duen prestakuntza orokorrari esker, Filosofiako tituludunek amaierako hiru profil profesionaletan berme osoz jarduteko gaitasunak, ezagutzak, motibazioa eta baliabideak (kontzeptuzkoak, instrumentalak nahiz orotarikoak) bereganatuko dituzte.

**1.-** Filosofiako irakasgaien irakaskuntza, Bigarren Hezkuntzan eta unibertsitatean Bigarren Hezkuntzako irakaslea. Filosofiako graduiko ikasketen bidez, diziplina anitzeko prestakuntza lortzen da (lau jakintza-arlo hauen bidez: Estetika eta Arteen Teoria, Filosofia, Filosofia Morala eta Politikoa, eta Zientziaren Logika eta Filosofia), eta prestakuntza horrekin, gradudunak gai izango dira Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan irakasle jarduteko.

**2.-** Graduiko titulua eskuratzea da diziplinako eta diziplinarteko ikerkuntza-karrerarako gaitasuna hartzeke lehen urratsa: bai Filosofiako diziplinarako, hertsiki, master eta doktorego tituluen bidez, baita humanitate, gizarte zientzia, zientzia natural eta formaletako beste aukera batzuetarako ere.

**3.-**Profil balioaniztuna, etika aplikatua eta kulturaren eta informazioaren kudeaketa.

Profil honen bidez, Filosofiako gradudunak aukera izango du, lan-jarduera irakaskuntzan eta ikerkuntzan gauzatzeko ez ezik, erakundeetan eta enpresen esparruan lan egiteko ere, askotariko arlo eta eremuetan; adibidez argitaletxeetan, Fundazioen administrazioan, funtzio publikoan, kudeaketa eta bitartekotza kulturean, aholkularitza-bulegoetan, zerbitzu zibiletan, gizarte-ongizatean, informazioaren teknologietan eta baita harreman publikoetan ere. Askotariko arloetan aholkulari gisa jarduteko gaitasuna ere izango du Filosofiako gradudunak, bai etika-batzordeetan (bioetika, deontologia) edo enpresen gizarterantzukizun korporatiboko batzordeetan, baita komunikazio-bulegoetan ere (politika, publizitatea) edo arte kritika lantzen dutenetan (prentsa, zinema), erakunde publiko, kultural eta sozialekin lankidetzan, nahiz enpresen giza baliabideen bulegoetan. Azkenik, aipatzekoa da hainbat fenomeno berriren ondorioz -adibidez immigrazioaren ondorioz-, gero eta beharrezkoagoak direla askotariko bizipen eta kultura-jatorrietan oinarrituriko pentsaera eta ikuspegien arteko bitartekaritza egiteko pertsonak, integrazioarekin loturiko gatazkei irtenbide egokiak eman ahal izateko.

Profil balioaniztun hau garatzeko, borondatezko praktiken sare bat diseinatu da. Bestalde, profil horrekin loturiko hainbat gai zuzen-zuzenean lantzen dituzte hautazko 5 ikasgaiak: Filosofia eta Literatura; Filosofia, Zientzia eta Gizartea; Zientzien Filosofia eta Historia; Justizia eta Eskubideak, XXI. Mendean; Garaiko Eztatanda Etikoak.

## **LAN-MUNDUAN SARTZEA**

Filosofiako gradudunak bi bide nagusitatik sartu izan dira, orain artean, lan-munduan: irakaskuntza-jardueraren bidez eta ikerkuntza-jardueraren bidez. Filosofiako gradu berrirako proposamenean, lan-munduan sartzeko bi bide horiek kontuan hartu dira. Bi horiei beste bat erantsi zaie, ordea, hirugarrena: profil balioaniztuna (ikus GRADUDUNAREN PROFILA atala). Bide berri horren bidez, zabaldu egin nahi da Filosofiako gradudunek lanean hasteko dituzten aukeren esparrua.

Lan-munduan sartzeari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus honako dokumentu hau, UPV/EHUren webgunean:

[http://www.irakasleak.ehu.es/p253-content/es/contenidos/estadistica/insercion\\_laboral/es\\_inserlab/contenidos/estadistica/insercion\\_laboral/es\\_inserlab/adjuntos/08\\_Inserción%20Laboral.xls](http://www.irakasleak.ehu.es/p253-content/es/contenidos/estadistica/insercion_laboral/es_inserlab/contenidos/estadistica/insercion_laboral/es_inserlab/adjuntos/08_Inserción%20Laboral.xls)

## **EZARPEN-KRONOLOGIA**

- 1. maila:** 2010/11
- 2. maila:** 2011/12
- 3. maila:** 2012/13
- 4. maila:** 2013/14



**IKASKETEN DESKRIBAPENA**

Ikasketa hauen helburu nagusia da tituludunak prestatzea, tituludunek ikasketa horietarako definitutako profil profesionala lor dezaten, oinarrizko eskubideak eta aukera-berdintasuna errespetatuta. Marko orokor horren barruan honako helburu hauek lortu nahi dira:

- Ikasleei prestakuntza orokorra ematea, betiere honako arlo hauetan beharrezkoak diren oinarri teoriko eta metodologiak irakatsiz: historiaurrea, Antzinaroaren historia, Erdi Aroko historia, Aro Berriko historia, garaiko historia, historia ekonomikoa eta arkeologia.
- Historiaren dimentsio espaziala kontuan hartzen duen historiaren inguruko prestakuntza eskaintzea, Espainiako, Euskal Herriko, Europako eta Amerikako historia nabarmenduz.
- Ikasleei komunikazio-trebetasunak eta trebetasun didaktikoak irakastea, historia eta kulturari buruzko ideia eta eduki konplexuak transmititu ditzaten, eta ikasleak lortutako ezagutzak beste arlo nahiz diziplina akademiko zein profesionalekin erlazionatzeko gaitzea.
- Arazoak ebaluatzerakoan eta erabakiak hartzerakoan analisi kritikoa bultzatzea eta lidergo-espirtua indartzea, ikasleak prestatuta egon daitezen gero honako esparru hauetan jardun ahal izateko: espezializazioa, ikerketa, artxiboak eta liburutegiak, enpresak eta kulturaren eta irakaskuntzaren arloko erakundeak.
- Irakaskuntza autonomia eta etengabeko prestakuntza bultzatzea eta besteak beste, historiaren, dokumentazioaren, artxibistikaren, arkeologiaren eta arkitekturaren esparruetan beste profesional batzuekin talde-lanean aritzeko gaitzea.

**SARRERAKO PROFILA**

Historiako graduako ikasleek giza zientzietan eta gizarte-zientzietan interesa dutela erakutsi beharko dute. Bestalde, euren inguruneke eta beste gizarte batzuetako arazoengatik arduraren badutela erakutsi beharko dute.

Halaber, garrantzitsua da gizadiaren bilakaera historikoa ezagutu eta bilakaera horrek egungo munduan duen eragina ezagutzeko interesa edukitzea. Horrez gain, ezinbestekoa da etorkizuneko ikasleek behaketarako eta azterketarako gaitasuna edukitzea, egungo fenomenoak ikusi eta horien sustrai historikoak aztertu ahal ditzaten.

Azkenik, etorkizuneko ikasleek irakurketa oso gustuko izan behar dute, bereziki gai historiko, sozial eta kulturekin lotutakoa, eta adierazteko eta komunikatzeko dohainak eduki behar dituzte.

**IKASKETEN ANTOLAKETA**

Mota	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila	Totala
<b>Jakintza-adarreko oinarrizko irakasgaiak</b>	30	18	-	-	48
<b>Beste jakintza-adar batzuetako oinarrizko irakasgaiak</b>	12	-	-	-	12
<b>Nahitaezko irakasgaiak</b>	18	42	36	30	126
<b>Hautazko irakasgaiak</b>	-	-	24	24	48
<b>Gradu-amaierako lana</b>	-	-	-	6	6
<b>Maila bakoitzean, guztira</b>	60	60	60	60	<b>240</b>

## TITULAZIOAREN PROGRAMA

Historiako gradua honako gai hauen inguruan ardaztuta dago: historiaurrea, Antzinaroaren historia, Erdi Aroaren historia, Aro Berriaren historia, garaiko historia, Amerikako historia, historia ekonomikoa eta arkeologia. Egin behar diren oinarrizko eta nahitaezko irakasgaiak honako hauek dira:

### Lehenengo maila

Historiaurreko Gizarte Ehiztariak eta Ugaltzaileak  
Antzinaroko Gizarteak eta Kulturak  
Erdi Aroa: Hastapenak  
Arkeologiaren Hastapenak  
Munduko Historia Ekonomikoa  
Europako Geografia  
Egungo Munduaren Geografia  
Arte-estiloen Historia  
Arteen Hizkuntzaren Hastapenak  
Mintzaera eta Idazkera I\*

### Bigarren maila

Arkeologia  
Historiaurreko Gizarte Ekoizleak  
Antzinaroaren Historia I: hiri greko arkaikoetatik erreinu helenistikoetara  
Erdi Aroaren Historia I: Mendebaldeko Goi Erdi Aroa  
Aro Berriaren Oinarriak  
